Sakatuta eduki **pizteko** tekla, harik eta telefonoa piztu arte; behar izanez gero, desblokeatu telefonoa (lerratu, PINa, pasahitza edo eredua) eta baieztatu. Pantaila nagusia bistaratuko da.

PIN kodea ez badakizu edo ahaztu egin bazaizu, jarri harremanetan sare-operadorearekin. Ondo gorde PIN kodea.

### 1..2.3 Telefonoa itzaltzea

Sakatuta eduki **pizteko** tekla telefonoaren aukerak agertzen diren arte, eta hautatu **Itzaltzean**.

## 1.3 Pantaila nagusia

Zure elementu gogokoenak edota sarrien erabiltzen dituzunak (aplikazioak, lasterbideak, karpetak eta widgetak) jar ditzakezu pantaila nagusian, azkar iristeko. Sakatu hasiera-tekla, pantaila nagusira joateko.




**Egoera-barra**

- Egoera-adierazleak/jakinarazpenak
- Ukitu hau eta arrastatu beherantz jakinarazpen-panela irekitzeko.

**Bilaketa-barra**

- Ukitu ❶, testu bidezko bilaketa-pantailan sartzeko.
- Ukitu ❷, ahots bidezko bilaketa-pantailan sartzeko.

Ukitu ikono bat aplikazioak, karpetak eta abar irekitzeko.

**Gogoko aplikazioen ontzia**

- Ukitu ikonoa, dagokion aplikaziora sartzeko.
- Sakatuta eduki, aplikazioak mugitzeko edo ezabatzeko.

Ukitu hau aplikazio-zerrendara sartzeko.

Pantaila nagusia handituta azaltzen da, toki gehiago izan dezazun aplikazioak, lasterbideak eta abar gehitzeko. Lerratu pantaila nagusia horizontalean, ezkerretik eskuinera, pantaila nagusiaren ikuspegi osoa izateko

**Pantaila alderantzikagarria**

Bateragarria da telefonoa alderantzikatze funtzioarekin. Ukitu pantaila nagusian, aplikazio-zerrenda irekitzeko, eta, ondoren, ukitu **Ezarpen/ Pantailaren Ezarpenak/Desegin daiteke**. Lerratu botoia funtzioa aktibatzeko.

### 1.3.1 Ukipen-pantaila erabiltzea

**Ukitzea** 

Aplikazio batera sartzeko, ukitu hatzarekin.

**Luze sakatzea** 

Elementuetan eskuragarri dauden aukeretan sartzeko, sakatuta eduki. Adibidez, hautatu Contactos ataleko kontaktu bat, sakatuta eduki, eta aukera-zerrenda bat bistaratuko da pantailan.

**Arrastatzea** 

Jarri hatza pantaila gainean, objektua helburura arrastatzeko.

**Lerratzea** 

Lerratu pantaila aplikazio, argazki eta webguneetan gora eta behera mugitzeko. Horizontalean ere lerra dezakezu pantaila.

Gailu horrek aukera ematen du kameran eta galerian ere hatzarekin zooma egiteko. Ukitu bi aldiz pantaila tamaina handitzeko/murrizteko.

**Azkar lerratzea** 

Lerratzearen antzekoa da, baina azkarragoa.

**Hatzak elkartzea eta bereiztea** 

Jar itzazu bi hatz pantailan, eta bereizi edota elkartu pantailako elementu bat hurbiltzeko edo urruntzeko.

**Biratzea** 

Aldatu automatikoki pantailaren orientazioa horizontaletik bertikalera telefonoa albo batera biratuz, pantailaren ikuspegi hobea izateko

## 1.3.2. Egoera-barra

Egoera-barratik, telefonoaren egoera (eskuinean) eta jakinarazpenen informazioa (ezkerrean) bistaratu ditzakezu.

Arrastatu behera egoera-barra, jakinarazpenak ikusteko, eta arrastatu berriro bizkor konfiguratzeko panela irekitzeko.

Ixteko, ukitu eta arrastatu gorantz. Jakinarazpenik baldin badago, ukitu egin daitezke, zuzenean irakurtzeko.

**Jakinarazpen-panela**

Jakinarazpenik baduzu, ukitu eta arrastatu egoera-barra beherantz, jakinarazpen-panela irekitzeko eta informazio xehatua irakurtzeko.




Ukitu hau konfigurazio azkarreko panelera aldatzeko.

Ukitu, gertaerei buruzko jakinarazpen guztiak ezabatzeko (gainerako jakinarazpenak gorde egingo dira).

**Konfigurazio azkarreko panela**

Ukitu eta arrastatu jakinarazpen-panela beherantz, edo ukitu konfigurazio azkarreko panela irekitzeko. Ukitu ikonoak funtzioak aktibatzeko edo desaktibatzeko edo moduak aldatzeko. Konfigurazio azkarreko panela irekitzeko, ukitu ikonoa.




Ukitu hau erabiltzaile-pantailara iritsi eta jabearen izena, telefono-zenbakia eta bestelako zenbait informazio gordetzeko eta editatzeko.

Ukitu hau doikuntza azkarren panela pertsonalizatzeko.

Ukitu **Ezarpen** aukerara sartzeko eta elementu gehiago konfiguratzeko.

### 1.3.3 Bilaketa-barra

Aplikazioetan, telefonoan edo sarean informazioa bilatzeko erabil daiteke telefonoaren bilaketa-funtzioa.




❶ **Testua bilatzea**

- Ukitu bilaketa-barra pantaila nagusian.
- Idatzi aurkitu nahi duzun testua edo esaldia.
- Ukitu ikonoa teklatuan, sarean bilatu nahi baduzu.

❷ **Ahotsez bilatzea**

- Ukitu bilaketa-barran, elkarrizketa-koadroa bistara dadin.
- Esan aurkitu nahi duzun hitza edo esaldia. Bilaketaren emaitza-zerrenda bat bistaratzen da; zerrenda horretan, nahi duzuna aukeratu dezakezu.

### 1.3.4 Pantaila blokeatzea/desblokeatzea

Zure telefonoa eta pribatutasuna babesteko, honela blokea dezakezu telefonoaren pantaila: hatza lerratuz edo eredu bat, PIN bat edo pasahitz bat erabiliz.

**Pantaila desblokeatzeko eredu bat sortzea**

- Ukitu pantaila nagusian aplikazio-zerrenda irekitzeko, eta, ondoren, ukitu **Ezarpen/Blokeo-pantaila/Pantailaren blokeoa/ Eredua**.
- Marraztu zure eredu pertsonala.

**Telefonoaren pantaila blokeatzeko**

Sakatu behin **pizteko** tekla pantaila blokeatzeko.

**Telefonoaren pantaila desblokeatzeko**

Sakatu behin **pizteko** tekla pantaila pizteko; lerratu hatza, pantaila desblokeatzeko sortu duzun eredua egiteko; edo sartu PINa edo pasahitza edo... pantaila desblokeatzeko.

Pantaila blokeatzeko modu gisa **Pasatu hatza** hautatu baduzu, sakatu **pizteko** tekla pantaila argitzeko; ondoren, lerratu hatza gorantz pantaila desblokeatzeko, lerratu kameraren ikonoa ezkerrerantz kamerara iristeko, edo lerratu ahots bidezko bilaketaren ikonoa eskuinerantz ahots bidezko bilaketara heltzeko.




Ukitu bi aldiz xehetasun-pantailara sartzeko.

Lerratu gorantz pantaila desblokeatzeko.

Ahots bidezko bilaketa irekitzeko, lerratu hatza eskuinerantz.

Lerratu hatza ezkerrera kamera irekitzeko.

### 1.3.5 Pantaila nagusia pertsonalizatzea

**Gehitzea**

Sakatuta eduki karpeta bat, aplikazio bat edo widget bat mugitzeko modua aktibatzeko, eta arrastatu elementua zuk nahi duzun pantaila nagusira.

**Beste toki batean jartzea**

Sakatuta eduki beste toki batean jarri nahi duzun elementua, mugimendu -modua aktibatzeko; arrastatu elementua nahi duzun tokira, eta askatu. Pantaila nagusian nahiz gogokoen ontzian mugi ditzakezu elementuak. Sakatuta eduki pantailaren ezkerraldeko edo eskuinaldeko ikonoa, elementua beste pantaila nagusi batera arrastatzeko.

**Ezabatzea**

Sakatuta eduki ezabatu nahi duzun elementua mugimendu-modua aktibatzeko; arrastatu elementua **X** ikonoaren goiko aldera, eta, gorri jartzen denean, askatu.

### Karpetak sortzea

Elementuak (lasterbideak edo aplikazioak) pantaila nagusian eta gogokoen ontzian hobeto antolatzeko, karpeta batera gehi ditzakezu elementu bat bestearen gainean jarrita. Karpeta bati izena aldatzeko, ireki eta ukitu karpetaren izeneko barra, berriro izena idazteko.

### Pantaila-atzealdea pertsonalizatzea

Ukitu eta sakatuta eduki pantaila nagusiko eremu huts bat, eta, ondoren, ukitu **HORMA-PAPERAK** pantaila-atzealdea pertsonalizatzeko.

## 1.3.6 Azkena erabilitako widgetak eta aplikazioak

### Widgetak kontsultatzea

Sakatuta eduki pantaila nagusiko eremu huts bat, eta, ondoren, ukitu **WIDGETAK**, widget guztiak ikusteko.

Ukitu hautatutako widgeta eta lerratu, zure gogoko pantailara aldatzeko.

### Azkena erabilitako aplikazioak ikustea

Azkena erabilitako aplikazioak kontsultatzeko, ukitu **Azkena erabilitako aplikazioen** tekla. Ukitu leihoko miniatura bat aplikazioa irekitzeko.




Ukitu miniatura bat eta lerratu eskuinerantz edo ezkerrerantz, edo ukitu **X** aplikazioa ixteko.

Ukitu , pantailaren behealdean, irekita dituzun aplikazio guztiak ixteko.

## 1.3.7 Bolumena doitzea

### Bolumen-tekla erabiltzea

Sakatu **bolumen-tekla** bolumena doitzeko. Bibrazio-modua aktibatzeko, sakatu **bolumena jaisteko** tekla telefonoak bibratu arte.

### Doikuntza-menua erabiltzea

Pantaila nagusian, ukitu  aplikazio-zerrenda irekitzeko, eta, ondoren, ukitu **Ezarpen\Soinua eta jakinarazpena\Soinua** tonuen alarmen eta abarren bolumena doitzeko, zure lehentasunen arabera.

# 2 Boom tekla ..................................

Hemen daude eskuragarri Boom teklaren doikuntzak: **Ezarpen\ Boom tekla**

Boom tekla aktibatuta badago:

- Efektu meteorologikoak bistaratzeko, sakatu tekla hau pantaila nagusian.
- Bat-bateko argazki bat egiteko, sakatu tekla hau telefonoa blokeatuta dagoela.
- Argazki-ateratze jarraitua abiarazteko, sakatuta eduki tekla hau, telefonoa blokeatua dela.
- Sakatu tekla hau kantu bat edo film bat erreproduzitzean audio-efektuak aktibatzeko.
- Sakatu tekla hau dei bat egitean ahotsaren kalitatea hobetzeko.
- Argazki-collage bat egiteko, sakatu tekla hau Galeriako Momentosen.
- Sakatu tekla hau film bat ikustean efektu bereziak aktibatzeko; adibidez, sekuentzia-aldaketa.
- Boom teklaren funtzioa ere pertsonaliza daiteke. Adibidez, pantaila-argazkiak egiteko erabil daiteke, edo pantaila blokeatuta dela aplikazioak exekutatzeko.
- Telefonoa blokeatuta dela (pantaila itzalita):

  - sakatu behin pantaila aktibatzeko;

  - sakatu bi aldiz bat-batean argazki bat egiteko (800 ms);

  - sakatuta eduki argazki-ateratze jarraitua egiteko.

# 3 Testua idaztea..............................

## 3.1 Pantailako teklatua erabiltzea

**Pantailako teklatuaren doikuntzak**

Ukitu **Ezarpen > Hizkuntza eta teklatua**, ukitu konfiguratu nahi duzun teklatua, eta aukeran dituzun doikuntzak bistaratuko dira.

**Pantailako teklatuaren orientazioa doitzea**

Biratu telefonoa alborantz edo gorantz, pantailako teklatuaren orientazioa doitzeko. Doitzeko, aldatu doikuntzak (ukitu **Ezarpen/Pantaila/Biratu automatikoki**). Gainera, telefonoko pantaila alderantzikagarria da. (Ukitu **Ezarpen\Pantaila\Desegin daiteke**).

### 3.1.1 Android teklatua



## 3.2 Testua editatzea

Idatzitako testua editatu egin daiteke.

- Sakatuta eduki edo sakatu bi aldiz editatu nahi duzun testua.
- Arrastatu fitxak nabarmendutako testua aldatzeko.
- Aukera hauek bistaratuko dira: **HAUTATU GUZTIAK, EBAKI, KOPIATU** eta **PARTEKATU**.




Testu berria ere sar dezakezu, nahiago izanez gero.

- Ukitu idatzi nahi duzun tokia, edo ukitu eta sakatuta eduki hutsunea; kurtsoreak keinu egingo du eta fitxa bistaratuko da. Arrastatu hatza kurtsorea mugitzeko.
- Testuren bat moztu edo kopiatu baduzu, ukitu testua **ITSATSI** ikonoa bistaratzeko, zeinak berehala itsasteko aukera ematen baitizu.



# 4 Telefono-deiak, erregistroak eta kontaktuak..............................

## 4.1 Deiak.......................................................................

### 4.1.1 Deitzea

**Telefonoa** aukeraren bitartez egin ditzakezu deiak. Ukitu , pantaila nagusian **Deitu** aplikaziora sartzeko.






Sartu nahi duzun zenbakia teklatuaren bidez eta ukitu deitzeko, edo hautatu **KONTAKTUAK** edo **AZKENAK** ataleko kontaktu bat, fitxak arrastatuz edo ukituz; gero, deitu.

Sartu duzun zenbakia **Kontaktuak** atalean gordetzeko, sakatu , eta, gero, **Kontaktu berria**.

Nahasten bazara eta okerreko zenbakiak ezabatu nahi badituzu, ukitu behar duzu.

Deia esekitzeko, ukitu .

## Nazioarteko deiak

Nazioarteko deiak egiteko, sakatuta eduki 0 "+" ikurra idazteko. Ondoren, idatzi herrialdearen nazioarteko aurrezenbakia eta telefono-zenbaki osoa, eta ukitu .

## Larrialdi-deia

Zure telefonoak sare-estaldura baldin badu, markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu tekla larrialdi-dei bat egiteko. SIM txartelik gabe ere funtzionatzen du, bai eta PIN kodea sartu gabe ere.

## 4.1.2 Deiei erantzutea edo ez onartzea







Dei bat jasotzen duzunean:

- Lerratu ikonoa eskuinerantz, deiari erantzuteko;
- Lerratu ikonoa ezkerrerantz deia ez onartzeko;
- Lerratu ikonoa gora deia ez onartzeko eta aurrez ezarritako mezu bat bidaltzeko.

Sarrerako dei baten tonuaren bolumena isilarazteko, sakatu **bolumena igotzeko/jaisteko tekla**, edo biratu telefonoa (**Ezarpen\Aurpegierak\Biratu isilarazteko** aukera aktibatuta dagoela).

Erosoago jarduteko eta funtzionalitatea bermatzeko, bai eta dei normaletan ere, erabiltzailearen interfaze alderantzikagarri bat du telefonoak; horri esker, alderantziz egonda ere, ondo funtzionatzen du.

### 4.1.3 Ahots-postontzira deitzea

Deirik ez galtzeko, sareak ahots-postontziaren zerbitzua du. Zerbitzu horrek erantzungailu gisa funtzionatzen du, eta edozein unetan kontsultatu dezakezu postontzi hori.

Ahots-postontzira sartzeko, sakatuta eduki 1 tekla.

Ahots-postontziaren zenbakia sartzeko: Sakatuta eduki 1 eta, ondoren, ukitu **GEHITU ZENBAKIA/Erantzungailua/ Konfigurazioa/Erantzungailua**

Ahots-mezu bat jasoz gero, ahots-postontziaren (...) ikonoa bistaratuko da egoera-barran. Ireki jakinarazpen-panela, eta ukitu **Ahots-mezu berria**.

### 4.1.4 Telefonoz hitz egiten ari zarela

Dei bat egitean bolumena doitzeko, sakatu **bolumena igotzeko edo jaisteko** tekla.



Ukitu hau uneko deia amaitzeko.

Ukitu hau bozgorailua aktibatzeko uneko deian. Ukitu ikono hau berriro, bozgorailua desaktibatzeko.

Ukitu hau uneko deia isilarazteko. Ukitu ikono hau berriro soinua ezartzeko.

Ukitu hau markatzeko teklatua bistaratzeko.

Ukitu hau uneko deia zain uzteko. Ukitu ikono hau deia berreskuratzeko.

Ukitu dei bat gehitzeko.

Dei batean ukipen-pantaila konturatu gabe ez ukitzeko, pantaila automatikoki blokeatuko da telefonoa belarrira gerturatzean, eta desblokeatu handik urruntzean.

### 4.1.5 Aldi berean zenbait dei kudeatzea

Telefono honekin, zenbait dei kudeatu ditzakezu aldi berean.

**Deiak txandakatzea**

Bi dei onartzen badituzu, ukitu ikonoa dei batetik bestera aldatzeko. Uneko deia zain utzi eta bestera alda zaitezke.

**Konferentzia** (1)

Honela ezar dezakezu telefono-konferentzia bat:

- Deitu telefono-konferentziako lehenengo solaskideari.
- Ukitu ikonoa.
- Ondoren, ukitu ikonoa; jarraian, ikonoa konferentzia hasteko.
- Ukitu konferentzia amaitzeko eta parte-hartzaile guztiak deskonektatzeko.

## 4.1.6 Deiaren doikuntzak

- Ukitu dei-pantailan; ondoren, ukitu Ezarpenak. Aukera hauek agertuko dira:

**Bistaratze-aukerak**

- **Ordenatu honen arabera:** ukitu zerrenda izenaren edo abizenaren arabera ordenatzeko.
- **Izenaren formatua:** ukitu lehenbizi izena ala abizenak bistaratu behar diren hautatzeko.

**Tonuak eta dardara**

Ukitu sartzen den deiaren tonua ezartzeko, eta markatu kontrol-laukia teklatuaren tonuak edo deien bibrazioa aktibatzeko.

**Erantzun bizkorrak**

Ukitu erantzun azkarrak editatzeko.

(1) Zure sare-operadorearen arabera.

### Dei-kontuak

- Dei dualaren doikuntzak: hautatu SIM 1 edo SIM 2 aukera hauetako bat hautatzeko.(1)

  - **Erantzungailua**

    **Zerbitzua:** Elkarrizketa-koadro bat irekitzen du, zure operadorearen ahots-postontziaren zerbitzua edo beste zerbitzu bat hautatzeko.

    **Konfiguratu:** Zure operadorearen ahots-postontziaren zerbitzua erabiltzen baduzu, aukera honek elkarrizketa-koadro bat irekiko du; kontsultatu nahi duzun telefono-zenbakia idatz dezakezu hor, eta ahots-postontzia kudeatu. Koma bat (,) idatz dezakezu zenbakian eten bat txertatzeko; adibidez, pasahitz bat gehitzeko telefono-zenbakia-ren ondoren.

    **Soinua:** Ukitu soinua konfiguratzeko ahots-mezu berri bat iristean.

    **Dardara:** Markatu kontrol-lauki hau bibrazioa aktibatzeko ahots-mezu berri bat jasotzean.

  - **Markaketa finko zenbakiak**

    Markaketa finkoko zenbakien aukera (FDN) SIM zerbitzuak mugak jartzen ditu, zenbaki jakin batzuk bakarrik markatu daitezen. Telefono -zenbaki horiek FDN zerrendan sartzen ditu. FDN zerrenda batez ere erabiltzen da gurasoek seme-alabei mugatzeko zer zenbakitara deitu dezaketen. Segurtasun-arrazoiak direla eta, FND aukera aktibatzeko SIMaren PIN2 kodea sartu behar da. Normalean, zerbitzu-hornitzaileari eta SIMaren fabrikatzaileari eskatu behar zaio.

  - **Dardara-abisua**

    Ukitu  etengailua deiak konektatzean bibrazioa aktibatzeko.

  - **Zerbitzu-markatze zenbakiak**

    SDN zerrendatik egin dezakezu dei bat.

(1) 6055K, 6070K-rako bakarrik

- **Aktibatu bideo-deiak**

  Markatu kontrol-laukia bideodeiak aktibatzeko.

- **GSM deiaren ezarpenak**

  **Deien desbideratzeak:** Ukitu hemen linea okupatuta dagoenean, erantzuten ez denean edo estaldurarik ez dagoenean deiak desbideratzeko modua konfiguratzeko.

  **Ezarpenak gehigarriak:** Ukitu **Deitzailearen IDa** operadorearen doikuntza lehenetsiak erabiltzeko irteera-deietan nire zenbakia bistara dadin.

  Uneko dei batean sarrerako deiak jakinarazteko, markatu **Deiak zain uztea** kontrol-laukia.

  **Deien debekuak:** Ukitu hemen deien debekua konfiguratzeko. Markatu kontrol-laukia dei-murrizketa aktibatzeko irteera- eta sarrera-deietan.

**Irisgarritasuna**

Lerratu botoia audifonoak aktibatzeko.

## 4.2 Dei-erregistroa

Dei-pantailan **Azkenak** fitxa sakatuta dei-memoriara sar zaitezke eta sarrera- eta irteera-deiak ikusi, bai eta dei galduak ere.

Ukitu kontaktu edo zenbaki bat informazioa ikusteko edo beste eragiketa batzuk egiteko: dei berri bati ekin, SMS bat bidali kontaktuari edo zenbakiari, deiari buruzko informazio xehatua ikusi, edo deia ezabatu.

Ukitu **Ikusi deien historia osoa** dei guztien erregistroa ikusteko; ukitu eta **Garbitu deien erregistroa** dei-memoria guztia ezabatzeko.

# 4.3 Kontaktuak..................................................

**Kontaktu**ei esker, aise eta azkar irits zaitezke harremanetan jarri nahi duzun jendearengana.

Zure telefonoan kontaktuak bistaratu eta sor ditzakezu, eta Gmaileko edota sareko nahiz zure telefonoko beste aplikazio batzuetako kontaktuekin sinkroniza ditzakezu.

## 4.3.1 Kontaktuak kontsultatzea

Zure kontaktuak ikusteko, ukitu pantaila nagusiko eta hautatu **Kontaktuak**.




### Kontaktu bat ezabatzea

Elementu bat ezabatzeko, sakatuta eduki; -ra aldatuko da ikonoa; ondoren, ukitu eta egiaztatu ezabaketa. Ukitu kontaktu guztiak hautatzeko; ondoren, , eta baieztatu kontaktu guztiak ezabatu nahi dituzula.

Ezabatutako kontaktua telefonoko beste aplikazio batzuetatik ere ezabatuko da, bai eta Internetetik ere, telefonoa sinkronizatzen duzun hurrengo aldian.

Ukitu ⋮ kontaktu-zerrendako aukera-menua bistaratzeko, eta aukera hauek bistaratuko dira:

- **Bistaratzeko konkatuak** Hautatu bistaratu nahi dituzun kontaktuak.
- **Bateratu kontaktuak** Hautatu kontaktu bikoiztuak, bateratzeko.
- **Inportatu/ Esportatu** Kontaktuak batetik bestera inporta edo esporta ditzakezu hauen artean: telefonoa, SIM txartela, microSD txartela eta telefonoaren biltegia.
- **Blokeatu kontaktuak** Ukitu hemen zure kontaktu blokeatuak bistaratzeko. Desblokeatu ere egin ditzakezu.
- **Kontuak** Kontuen sinkronizazio-doikuntzak kudeatzeko.
- **Ezarpenak** Ukitu hau sailkapen-zerrendaren bistaratzea eta kontaktuen izenak aldatzeko.

## 4.3.2 Kontaktuak gehitzea

Ukitu kontaktuen zerrendako + ikonoa, kontaktu berri bat sortzeko.

Idatzi kontaktuaren izena eta gainerako informazioa. Eremu batetik bestera pasatzeko, mugitu pantailan gora eta behera.




Amaitu ondoren, ukitu ✓ gordetzeko.

Gorde gabe irteteko, ukitu ⋮ eta, ondoren, ukitu **Baztertu aldaketak**.

**Gogokoak gehitzea/ezabatzea**[1]

Gogokoetara kontaktu bat gehitzeko, ukitu kontaktu bat haren xehetasunak bistaratzeko; ondoren, ukitu ☆ kontaktua Gogokoetara gehitzeko (kolore zuria hartuko du izarrak).

Kontaktu bat gogokoetatik ezabatzeko, ukitu izar zuria ★ kontaktuen xehetasun-pantailan.

### 4.3.3 Kontaktuak editatzea

Kontaktuei buruzko informazioa editatzeko, ukitu ✎ kontaktuen xehetasunen pantailan.

Amaitutakoan, ukitu ✓ gordetzeko.

(1) Telefonoko zenbakiak bakarrik gehi daitezke Gogokoak aukerara.

## 4.3.4 Quick Contact for Android erabiltzea

Ukitu kontaktua Quick Contact for Android irekitzeko, eta, ondoren, ukitu edo zenbakia deia egiteko, eta, azkenik, ukitu mezu bat bidaltzeko.




Kontaktu bizkorren paneleko ikonoak kontaktuari eta aplikazioei buruz duzun informazioaren eta telefonoko kontuen araberakoak dira.

## 4.3.5 Kontaktuak inportatu, esportatu eta partekatzea

Kontaktuak batetik bestera inporta edo esporta ditzakezu hauen artean: telefonoa, SIM txartela, eta telefonoaren biltegia.

Kontaktuen pantailan, ukitu aukera-menua irekitzeko, ukitu **Inportatu/Esportatu** eta, ondoren, hautatu **Inportatu SIM txarteletik, Inportatu SD biltegitik edo Inportatu telefonoaren biltegitik, Esportatu SIM txartelera, Esportatu SD biltegira, Esportatu telefonoaren biltegira edo Partekatu ikusgai dauden kontaktuak**.

Kontaktu bat edo gehiago beste pertsona batzuekin partekatzeko aukera duzu kontaktuaren vCard-a bidaliz bluetooth, MMS, posta elektroniko eta abarren bidez.

Ukitu partekatu nahi duzun kontaktua, ukitu ⋮ ikonoa eta **Partekatu** kontaktuaren xehetasunen pantailan. Ukitu partekatu nahi duzun kontaktua, ukitu ✓, eta hautatu ekintza hori egiteko erabili nahi duzun aplikazioa.

### 4.3.6 Kontaktuak bistaratzea

Kontaktuen zerrendan bistaratu nahi dituzun kontaktu-zerrendak konfigura ditzakezu kontu bakoitzerako. Ukitu ⋮ eta, ondoren **Bistaratzeko kontaktuak** zerrendaren pantailan; ondoren, bistaratu nahi dituzun kontaktuak hauta ditzakezu.

Ukitu ⋮ eta **Ezarpenak** zerrenda izenaren edo abizenaren arabera sailkatzeko eta, horrez gain, kontaktuen izena ala abizena ikusteko lehenbizi.

### 4.3.7 Kontaktuak taldekatzea eta banatzea [1]

Bikoizketarik ez izateko, ekintza bakar batekin gehi dezakezu edozein konkatu-informazio lehendik dauzkazun kontaktuetara.

Ukitu informazioa gehitu nahi diozun kontaktua, eta ukitu ✎ kontaktuak editatzeko pantailara sartzeko. Ondoren, ukitu ⋮ eta hautatu **Batu**

Une horretan, lehenengo kontaktuarekin zein kontakturen informazioa bateratu nahi duzun hautatu behar duzu. Bigarren kontaktuaren informazioa lehengoaren informazioari batuko zaio, eta bigarren kontaktua desagertu egingo da kontaktuen zerrendatik.

(1) Telefonoko kontaktuei bakarrik aplika dakieke.

Kontaktuen informazioa zatitzeko, ukitu informazioa zatitu nahi duzun kontaktua, ukitu kontaktua editatzeko pantailara sartzeko; ondoren, ukitu berriro eta, berresteko, ukitu **Bereizi** eta **ADOS**

### 4.3.8 Kontuak

Zenbait kontutako kontaktuak, datuak eta bestelako informazioa sinkroniza daitezke, telefonoan instalatutako aplikazioen arabera.

Kontu bat gehitzeko, ukitu kontaktu-zerrendan eta ukitu **Kontuak/ Gehitu kontua**, edo ukitu pantaila nagusian eta, ondoren, **Ezarpen/ Kontuak/Gehitu kontua**.

Erantsi nahi duzun kontu-mota hautatu behar duzu: Google, Korporatiboa (Lana), eta abar.

Beste kontu-konfigurazio batzuekin bezala, informazio xehea sartu behar da: erabiltzaile-izena, pasahitza eta abar.

Telefonotik kontu bat kendu nahi baduzu, ezaba dezakezu, hari lotutako informazio guztiarekin batera. Ukitu ezabatu nahi duzun kontua, ukitu eta hautatu **Ezabatu kontua**; ondoren, berretsi.

**Sinkronizazio automatikoa aktibatzea/desaktibatzea**

**Kontuak** pantailan, ukitu , eta markatu **Sinkronizatu datuak auto kontrol-laukia.** Aktibatzen bada, automatikoki sinkronizatuko dira elkarrekin telefonoaren informazioari edo online aplikatutako aldaketa guztiak.

# 5 Mezuak eta posta elektronikoa......................

## 5.1 Mezuak..........................................................

Telefono honen bidez, SMSak eta MMSak sortu, aldatu eta jaso ditzakezu. Mezuak bidaltzeko, ukitu pantaila nagusiko , eta hautatu **Mezuak**.

### 5.1.1 Mezua idaztea

Mezu-zerrendaren pantailan, ukitu mezu berriaren ikonoa , testu-mezuak edo multimedia-mezuak idazteko.




- Ukitu hau mezuaren elkarrizketa osoa ikusteko.
- Sakatuta eduki tekla hau ezabatzeko modua aktibatzeko.

Ukitu hau, mezu berri bat sortzeko.

Gordetako kontaktuetan, ukitu argazkia kontaktu bizkorren panela ireki eta kontaktu horrekin komunikatzeko. Gorde gabeko kontaktuetan, ukitu  zenbaki hori **Kontaktuak** aukerara gehitzeko.

### Testu-mezu bat bidaltzea

Sartu hartzailearen mugikorreko zenbakia **Hartzailea** barran, edo ukitu hartzaileak gehitzeko. Ukitu **Bidali mezua** barra mezuaren testua idazteko. Ukitu ikonoa aurpegierak txertatzeko. Bukatzen duzunean, ukitu , testu-mezua bidaltzeko.

160 karaktere baino gehiago dituen SMS mezu bat hainbat SMS mezu bezala fakturatuko da. Kontagailu bat agertuko da testu-kutxaren goiko eskuineko aldean, mezu batean zenbat karaktere idatz daitezkeen gogoratzeko.

Karaktere bereziek (azentuak) ere handitu egiten dute SMSaren tamaina; hori dela eta, baliteke hartzaileak SMS bat baino gehiago jasotzea.

### Multimedia mezu bat bidaltzea

Multimedia-mezuetan, bideoak irudiak, argazkiak, animazioak, diapositibak eta doinuak bidal ditzakezu beste mugikor bateragarri eta helbide elektroniko batzuetara.

SMSak, automatikoki, MMS bihurtuko dira baldin eta multimedia fitxategiak (irudia, bideoa, audioa, diapositibak, etab.), gaiak edo posta elektronikoko helbideak eransten badira.

Multimedia-mezu bat bidaltzeko, sartu hartzailearen telefono-zenbakia **Hartzailea** barran, eta ukitu **Bidali mezua** barra mezuaren testua idazteko. Ukitu aukeren menua irekitzeko; ondoren, ukitu **Gehitu gaia** gai bat eransteko. Ukitu ikonoa argazki, bideo, audio... bat eransteko.

Bukatzen duzunean, ukitu , multimedia-mezua bidaltzeko.

### 5.1.2 Mezuak kudeatzea

Mezu berri bat jasotzen duzunean, ikonoa bistaratuko da barra-egoeran, jakinarazpen gisa. Beherantz arrastatu egoera-barra, jakinarazpen -panela irekitzeko, eta ukitu mezu berria, ireki eta irakurtzeko. Mensajes aplikazioa ere ireki dezakezu, eta mezua ukitu, irekitzeko.

Elkarrizketaren ordenan azalduko dira mezuak.

Ukitu mezu bat, mezuak sortzeko pantailara joateko.

- Ukitu zenbaki horretara deitzeko.
- Ukitu , zenbakia Kontaktuak aukeran gordetzeko edo kontaktuaren xehetasunak ikusteko, zenbakia gorde baldin bada.
- Mezu bati erantzuteko, idatzi testua edo ukitu testu azkarra, kontaktua eta abar sartzeko, eta, editatu ondoren, ukitu .
- Sakatuta Eduki mezu bat ikono hau bistaratzeko: testua kopiatu , birbidali , xehetasunak ikusi , ezabatu , etab; ukitu mezu bat SIM txartelean gordetzeko.

### 5.1.3 Mezuen doikuntzak konfiguratzea

Zenbait mezu-doikuntza konfigura ditzakezu. Mezu-zerrendaren pantailan, ukitu : ondoren, **Ezarpen**.

## OROKORRA

| | |
|---|---|
| • **SMS zerbitzua gaitu egin da** | Ukitu hemen aplikazio lehenetsia aldatzeko. |
| • **Editatu testu bizkorra** | Ukitu erantzun azkarren testua editatzeko. |

### Biltegia

| | |
|---|---|
| • **Ezabatu mezu zaharrak** | Hautatu mezu zaharrak ezabatzeko, eduki daitekeen gehienezko mezu-kopurua gainditzean. |
| • **Testu-mezuen muga** | Ukitu hemen elkarrizketa bakoitzeko gorde behar den gehienezko testu-mezuen kopurua ezartzeko. |
| • **Multimedia-mezuen muga** | Ukitu hau, elkarrizketa bakoitzeko gorde beharreko multimedia-mezuen kopurua ezartzeko. |

### Jakinarazpenak

| | |
|---|---|
| • **Jakinarazpenak** | Aktibatu aukera hau egoera-barran mezuen jakinarazpenak ikusteko. |
| • **Hautatu dei tonua** | Kontuen sinkronizazio-doikuntzak kudeatzeko. |
| • **Dardara** | Hautatu aukera hau mezu berri bat jasotzean telefonoak bibra dezan. |

### WAP mezuen ezarpenak

| | |
|---|---|
| • **Gaitu WAP mezuak** | Ukitu sareko push jakinarazpenak jasotzea aktibatzeko. |

**Igorpen zelular ezarpenak**

- **Igorpen zelularra** Markatu kontrol-laukia hedapen-mezuen jasotzea aktibatzeko.
- **Hautatu SMSen dei-tonua** Ukitu hau mezu-txirrina aktibatzeko hedapen-mezuak jasotzean.
- **Gaitu iforpen zelularraren LED adier.** Markatu kontrol-laukia hedapen-mezuen LED adierazlea aktibatzeko.
- **Gaitu pantaila argitzea** Markatu kontrol-lauki hau pantaila piztu dadin hedapen-mezu berri bat jasotzen duzun bakoitzean.
- **Dardara** Hautatu aukera hau mezu berri bat jasotzean telefonoak bibra dezan.
- **Igorpen zelular ezarpenak** Ukitu hau kanalak hautatzeko eta hizkuntzak konfiguratzeko.
- **Larrialdi-alerta** Ukitu hau larrialdi-alertetan doikuntzak egiteko, bai eta alertak eta alerta-tonuak bistaratzea nahi baduzu ere.

## EZARPEN AURRERATUAK

### Testu-mezuen (SMS) ezarpenak

| | |
|---|---|
| • **Entrega-txostenak** | Aktibatu aukera hau bidalitako multimedia -mezu bakoitzaren entrega-txostena eskatzeko. |
| • **Kudeatu SIM mezuak** | Ukitu hau SIM txartelean jasotako testu-mezuak kudeatzeko. |
| • **SMS zerbitzu-zentroa** | Ukitu hau zerbitzu-zentroko zenbakia editatzeko edo bistaratzeko. |
| • **Balio-aldia** | Ukitu hau balio-epea hautatzeko. Epe horretan, mezua bidaltzen saiatuko da sareko operadorea |
| • **Alfabeto-kudeaketa** | Ukitu hau Alfabeto modua hautatzeko. |
| • **SMSen sinadura** | Markatu kontrol-laukia bidaltzen dituzun mezuei sinadura jartzeko. |

### Multimedia-mezuen (MMS) ezarpenak

| | |
|---|---|
| • **Entrega-txostenak** | Aktibatu aukera hau bidalitako multimedia -mezu bakoitzaren entrega-txostena eskatzeko. |
| • **Irakurtze-txostenak** | Aktibatu aukera hau hartzaileak bidali zaion multimedia-mezua irakurri duen ala ez adierazten duen txosten bat eskatzeko. |

- **Berreskuratu automatikoki** Aktibatu aukera hau automatikoki deskargatzeko telefonoan MMS mezu osoak (mezuaren edukia eta erantsitako fitxategia). Bestela, MMS mezuen izenburuak bakarrik ezabatzen dira.
- **Berresk. Auto. ibiltaritzan** Aktibatu aukera hau automatikoki deskargatzeko telefonoan MMS mezu osoak (mezuaren edukia eta erantsitako fitxategia), roamingean. Bestela, MMS mezuen izenburuak bakarrik deskargatzen dira, kostu gehigarririk ez izateko.
- **Sortze modua** Hautatu aukera hori sorrera-modua aldatzeko.
- **Mezuen gehienezko tamaina** Hautatu aukera hori gehienezko mezu-tamaina sartzeko.
- **Lehentasuna** Ukitu lehentasuna doitzeko.

## 5.2 Posta elektronikoa .........................................

Telefonoa lehenbizikoz konfiguratzean, lehendik dagoen posta elektronikoko kontu bat erabiltzea aukera dezakezu, edo helbide berri bat sortu.

POP3 edo IMAP posta elektronikoko kanpoko kontuak ere konfigura ditzakezu zure telefonoan.

Posta elektronikoko zure kontua konfiguratzeko, ukitu pantaila nagusian eta hautatu **Helbidea**.

Posta elektronikoaren morroi batek gidatuko zaitu posta elektronikoko kontu bat konfiguratzeko urratsetan.

- Sartu konfiguratu nahi duzun kontuaren helbide elektronikoa eta pasahitza.
- Ukitu **Hurrengoa**. Sartu duzun kontua ez bada telefono-zerbitzuen hornitzaile ezagun batena, posta elektronikoko kontu-doikuntzen pantailara joateko eta konfigurazioa eskuz sartzeko eskatuko zaizu. Bestela, ukitu **eskuzko konfigurazioa** konfiguratzen ari zaren posta elektronikoko konturako sarrerako eta irteerako doikuntzak zuzenean sartzeko.
- Idatzi kontuaren izena eta bidaltzen dituzun mezu elektronikoetan azalduko dena.
- Posta elektronikoko beste kontu bat gehitzeko, ukitu ikonoa goizko ezkerreko aldean eta hautatu **Ezarpen**. Ondoren, ukitu **Gehitu kontua**.

## Mezu elektronikoak sortzeko eta bidaltzeko

- Ukitu Recibidos pantailako ikonoa.
- Idatzi mezuaren hartzaileen helbide elektronikoak **Nori** eremuan.
- Beharrezkoa bada, ukitu **Cc/Bcc** mezuari kopia bat edo ezkutuko kopia bat gehitzeko.
- Idatzi mezuaren gaia eta edukia.
- Ukitu fitxategi bat gehitzeko.
- Mezu elektronikoa berehala bidali nahi ez baduzu, ukitu eta **Gorde zirriborroa**, edo ukitu **atzera** tekla kopia bat gordetzeko.
- Ukitu bidaltzeko.

Ez baduzu mezua ez bidali ez gorde nahi, ukitu eta, ondoren, **Baztertu**.

Zure mezu elektronikoei sinadura bat gehitzeko, ukitu eta hautatu Ezarpen. Ondoren, hautatu zer kontutarako sortu edo aldatu nahi duzun sinadura, eta, editatzeko, ukitu Firma.

# 6 Egutegia, erlojua eta kalkulagailua ........................

## 6.1 Egutegia .......................................................  [(1)]

Erabili egutegia bileren, hitzordu garrantzitsuen eta abarren segimendua egiteko.

Egutegi bistaratzeko eta ekitaldiak sortzeko, ukitu pantaila nagusian eta eta, ondoren, ukitu **Egutegia**.

### 6.1.1 Modu anitzeko ikuspegia

Ikuspegi hauetan ikus dezakezu Egutegia: Agendan, Egunekoan, Hiru egunekoan, Astekoan edo Hilekoan.




(1) Dataren arabera aldatuko da ikono hori.

### 6.1.2 Gertaera berriak sortzea

Gertaera berriak sor ditzakezu egutegiko edozein ikuspegitan.

- Ukitu gertaera berrien edizio-pantailara sartzeko.
- Osatu gertaera berri horretarako behar duzun informazio guztia. Egun osoko gertaera baldin bada, hautatu **Egun osokoa**.
- Gonbidatu jendea gertaerara. Idatzi gonbidapena jasotzea nahi duzun pertsonen helbide elektronikoak, komaz bereizita. Pertsona horiek egutegiko eta posta elektronikoko gonbidapen bat jasoko dute.
- Amaitutakoan, ukitu **GORDE**,pantailaren goiko aldean.

Asteko ikuspegiko pantailatik gertaera bat azkar sortzeko, ukitu gune huts bat xede-eremua hautatzeko ( bihurtuko da) eta ukitu gertaera berria sortzeko ikonoa.

### 6.1.3 Gertaera bat ezabatzea edo editatzea

Gertaera bat ezabatzeko edo editatzeko, ukitu gertaera xehetasun -pantailara sartzeko, ukitu gertaera editatzeko eta, ondoren, ukitu **EZABATU** ezabatzeko.

### 6.1.4 Gertaera-gogorarazlea

Gertaera baterako gogorarazle bat jarriz gero, etorkizuneko gertaeraren ikonoa bistaratuko da egoera-barran jakinarazpen gisa, gogorarazpenaren ordua iritsitakoan.

Ukitu eta arrastatu behera egoera-barra, jakinarazpen-panela irekitzeko, eta ukitu gertaeraren izena, egutegian jakinarazpenen zerrenda ikusteko.

Ukitu **Atzera** tekla, erabiltzeko dauden gogorarazpenak barra-egoeran eta jakinarazpen-panelean edukitzeko.

## 6.2 Erlojua..........................................................

Telefonoak erlojua du.

Ordua bistaratzeko, ukitu pantaila nagusian, eta, ondoren, ukitu **Erlojua**.

### 6.2.1 Munduko erlojua

Munduko erlojua ikusteko, ukitu , Erlojua pantailan.

Ukitu ikonoa ordu-tarte bat gehitzeko.

### 6.2.2 Alarma

**Erlojua** pantailan, ukitu **Alarma** pantailan sartzeko.

Ukitu etengailua alarma aktibatzeko.

Ukitu alarma berri bat gehitzeko; eukera hauek azalduko dira:

| | |
|---|---|
| • **Ordua** | Ukitu hori alarmak jotzeko ordua ezartzeko. |
| • **Errepikapena** | Ukitu hori alarmak asteko zer egunetan jotzea nahi duzun hautatzeko. |
| • **Dei-tonu lehenetsia** | Ukitu alarmarako tonu bat aukeratzeko. |
| • **Egin dar-dar.** | Hautatu bibrazioa aktibatzeko. |
| • **Etiketa** | Ukitu alarmari izena jartzeko. |

Ukitu lehendik dagoen alarma bat alarma editatzeko pantailara sartzeko.

Ukitu ∨ eta, ondoren, hautatutako alarma ezabatzeko.

## 6.2.3 Atzerako kontaketa

**Erlojua** pantailan, ukitu , **Atzerako kontaketa** pantailan sartzeko.

- Sartu denbora. Zenbaki-sekuentziatan sartu behar duzu: orduak, minutuak eta segundoak.
- Ukitu ikonoa atzerako kontaketa aktibatzeko.
- Ukitu pnelean atzerako kontaketarako denbora doitzeko.
- Ukitu ikonoa atzerako kontaketa desaktibatzeko.
- Ukitu ikonoa uneko denbora-etiketa ezabatzeko.

## 6.2.4 Tenporizadorea

**Erlojua** pantailan, ukitu **Tenporizadorea** pantailan sartzeko.

- Ukitu tenporizadorea aktibatzeko.
- Ukitu ordu eguneratuari dagozkion erregistroen zerrenda bat bistaratzeko.
- Ukitu zeroan jartzeko totala eta erregistratutako denborak. ukitu ondoren eguneratuko dira denborak.
- Ukitu erregistroa ezabatzeko.
- Ukitu partekatzeko.

## 6.2.5 Erloju-doikuntzak konfiguratzea

Ukitu ikonoa; ondoren, ukitu **Ezarpenak** aukera hauek konfiguratzeko:

| | |
|---|---|
| • **Estiloa** | Ukitu erlojuaren modua analogikoan ala digitalean konfiguratzeko. |
| • **Etxeko erloju automatikoa** | Markatu kontrol-laukia funtzio hori aktibatzeko beste ordu-eremu bat duen ingurune batera bidaiatzean. Gehitu zure herrialdearen ordu-eremua erlojuari. |
| • **Etxeko ordua** | Ukitu aukera hau, zure herrialdearen ordu-eremua ezartzeko. |
| • **Aldatu data eta ordua.** | Ukitu data eta ordu automatikoak aktibatzeko edo eskuz aldatzeko. |
| • **Gelditu tarte hau igaro ondoren:** | Ukitu hori alarma baten ordua behin-behingoz desaktibatzeko. |
| • **Atzerapen luzera** | Ukitu hori alarmen iraupena ezartzeko. |
| • **Alarmaren bolumena** | Ukitu hori alarmaren bolumena ezartzeko. |
| • **Igo bolumena apurka-apurka.** | Ukitu honetarako: denbora-epe bat hautatu ondoren alarmaren bolumena igotzeko edo funtzio hori desaktibatzeko. |
| • **Bolumen-botoiak** | Ukitu hor alarmak jotzean **Bolumena igotzeko/jaisteko** albo-teklen jarduera ezartzeko: **Atzeratu, Baztertu** edo **Ez egin ezer**. |
| • **Hasi astea egun honetan** | Ukitu aste baten hasiera hautatzeko. |
| • **Tenporizadorearen tonua** | Ukitu tenporizadorearen tonua hautatzeko. |



## 6.3 Kalkulagailua..............................................

Matematikako problema ugari ebazten laguntzen du kalkulagailuak.

Kalkulagailua erabiltzeko, ukitu pantaila nagusian, eta, ondoren, ukitu **Kalkulagailua**.

Bi panel daude aukeran: Oinarrizko funtzioen panela eta Funtzio aurreratuen panela.

Panel batetik bestera aldatzeko, jarri gailua horizontal moduan oinarrizko funtzioen paneletik, edo lerratu hatza ezkerrerantz panel aurreratua irekitzeko(1).







Sartu zenbaki bat, hautatu egin nahi duzun eragiketa aritmetikoa, idatzi bigarren zenbakia, eta sakatu “=” emaitza bistaratzeko. Ukitu digituak banan-banan ezabatzeko edo sakatuta eduki guztiak batera ezabatzeko.

(1) Aktibatu baldin bada **“Ezarpen/Pantailaren ezarpenak/Biratu automatikoki/Biratu pantailaren edukia”**, elementu hau bistaratuko da.

# 7 Nola konektatu ..........................

Telefono honetatik Internetera konektatzeko, GPRS/EDGE/3G/4G sareak edo WiFia erabil ditzakezu.

## 7.1 Internetera konektatzea

### 7.1.1 GPRS/EDGE/3G/4G

Telefonoa, SIM txartela sartuta duela, pizten den lehenengo aldian, automatikoki konfiguratuko da sare-zerbitzua: GPRS, EDGE, 3G edo 4G.

Zer sare-konexio erabiltzen ari zaren begiratzeko, ukitu **Ezarpen/Gehiago.../Sare mugikorrak /APN edo Sare-operadoreak**.

**Sarbide-puntu berri bat sortzeko**

Telefonora GPRS/EDGE/3G/4G sare-konexio bat eransteko, eman pauso hauek:

- Ukitu **Ezarpen/Gehiago > Sare mugikorrak > APN**
- Ondoren, ukitu ikonoa behar den APNren informazioa sartzeko.
- Amaitu ondoren, ukitu tekla eta **Gorde**.

**Ibiltaritzako datuak aktibatzeko edo desaktibatzeko**

Roamingean, datu-zerbitzu batera konekta zaitezke, edo hartatik deskonektatu.

- Ukitu **Ezarpen/Gehiago > Sare mugikorrak**
- Lerratu botoia datu-roaminga aktibatzeko.
- Datu-roaminga desaktibatzen baduzu ere, datuak trukatzen segi dezakezu WiFi-konexio bat erabilita (ikusi "**7.1.2 WiFia**" atala).

**Sare-modu gogokoena hautatzeko**

- Ukitu **Ezarpen/Gehiago/Sare mugikorrak /Sarearen modu hobetsia**.

## 7.1.2 WiFia

WiFi-aren bidez, Internetera konekta zaitezke zure telefonoak haririk gabeko sare baten seinalea jasotzen duenean. Telefonoan WiFia erabil daiteke, SIM txartelik jarri gabe ere.

**WiFia aktibatzea eta haririk gabeko sare batera konektatzea**

- Ukitu **Ezarpen\WiFi**
- Ukitu etengailua WiFia aktibatzeko edo desaktibatzeko.
- WiFia aktibatuta dagoela, detektatutako WiFi sareei buruzko informazio xehatua bistaratuko da.
- Ukitu WiFi sare bat harekin konektatzeko. Hautatzen duzun sarea segurua bada, pasahitza edo bestelako egiaztagiriren bat sartu behar duzu (sare-operadorearekin harremanetan jar zaitezke, xehetasunen berri izateko). Amaitutakoan, ukitu **Konektatu**.

**Sare berri bat detektatzean jakinarazpen bat aktibarazteko**

WiFi funtzioa eta sare-jakinarazpena aktibatuta daudenean, egoera-barran azalduko da WiFiaren ikonoa, erabilgarri dagoen haririk gabeko sare erabilgarri bat detektatu orduko telefonoak. Hona WiFia aktibatuta dagoela jakinarazpen-funtzioa aktibatzeko eman beharreko pausoak:

- Ukitu **Ezarpen**.
- Ukitu **WiFi**; ondoren, ukitu ikonoa eta Aurreratua WiFi pantailan.
- Lerratu botoia **Sare-jakinarazpenaren** ondora funtzio hori aktibatzeko edo desaktibatzeko.

### WiFi sare bat gehitzeko

WiFi funtzioa aktibatuta dagoela, zure lehentasunen arabera gehi ditzakezu WiFi sareak.

- Ukitu **Ezarpen**.
- Ukitu **WiFi**; ondoren, ukitu ⋮ ikonoa eta **Gehitu sarea** WiFi pantailan.
- Idatzi sarearen izena eta sareari buruzko informazio guztia.
- Ukitu **GORDE**.

### WiFi sare bat ezabatzea

Hona jada erabili nahi ez diren sareetara automatikoki ez konektatzeko eman beharreko pausoak.

- Aktibatu WiFi funtzioa, aktibatuta ez badago.
- WiFi pantailan, ukitu gordetako sarearen izena.
- Ukitu **Ahaztu sarea** irekiko den elkarrizketa-koadroan.

## 7.2 Nabigatzailea[1] ...................................................

Aplikazio honekin Interneten nabiga dezakezu.

Interneten nabigatzeko, ukitu pantaila nagusian, eta, ondoren, ukitu **Arakatzailea**

### Webgune batean sartzeko

Nabigatzailearen pantailan, ukitu URL helbide-barra (goiko aldean), idatzi webgunearen helbidea, eta baieztatu.

(1) Alcatel IDOL 4-rako bakarrik




Ukitu hemen helbide hori bilatzeko eta hara joateko.
Ukitu hemen eduki guztia ezabatzeko.
Ukitu hemen iradokitako webgunera joateko.

### Pantaila nagusia zehazteko

- Ukitu ikonoa nabigatzailearen pantailan aukera-menua ikusteko, eta ukitu **Ezarpenak/Ezarri hasierako orria**
- Hautatu orri bat edo webgunerik bisitatuenak pantaila nagusitzat.
- **Beste bat** hautatzen baduzu, sartu hasiera-orritzat ezarri nahi duzun webgunearen URLa, eta ukitu **Ados** baieztatzeko.

### Webguneak bistaratzea

Webgune bat zabaltzean, hatza pantailan edozein norabidetan lerratuz nabiga dezakezu, eta nahi duzun informazioa bilatu.

### Webgune batean testua bilatzeko

- Ukitu ikonoa nabigatzailearen pantailan aukera-menua ikusteko, eta ukitu **Bilatu orrian**.
- Idatzi aurkitu nahi duzun testua edo esaldia.

- Pantailan azalduko da zuk bilatzen duzunarekin bat datozen karaktereekiko lehen hitza; hurrengo kointzidentziak, berriz, lauki barruan azalduko dira.
- Mugitu geziak gora edo behera, aurreko edo hurrengo kointzidentzietara jotzeko.
- Amaitzean, ukitu **atzera** tekla bilaketa-barra ixteko.

**Webgune batean testuaz egin daitezkeen eragiketa gehiago**

Webgune bateko testua kopiatu, partekatu edo bilatu:

- Sakatuta eduki testua, hautatzeko.
- Mugitu bi fitxa testua hautatzeko.
- Ukitu ikonoa eragiketa gehiago ikusteko, barne direla orrian edo webgunean partekatzea eta bilatzea.
- Amaitzean, ukitu **atzera** tekla modu hori desaktibatzeko.

**Leiho berri bat irekitzeko edo leiho batetik beste batera aldatzeko**

Leiho bat baino gehiago ireki daiteke aldi berean.

- Ukitu leiho-miniatura guztiak irekitzeko.
- Lerratu gorantz eta beherantz leiho guztiak ikusteko. Ukitu leiho bat, ikusteko.
- Ukitu leiho berri bat irekitzeko.
- Ukitu ikonoa eta, ondoren, , aztarnarik utzi gabe irekitzeko leihoak.
- Leihoak ixteko, ukitu itxi nahi duzun leihoan, edo alde baterantz lerratu.

**Beste zenbait aukera:**

| | |
|---|---|
| •  | Uneko orria eguneratzeko. |
| •  | Orriak zabalik birbidaltzeko. |
| • **Laster-markak** | Gogokoak eta nabigazio-historia ikusteko aukera ematen du. |
| •  | Uneko webgunea gogokoetan sartzeko aukera ematen du. |
| • **Historia** | Zure nabigazio-historia ikusteko. |
| • **Partekatu orria** | Uneko orria hainbat eratara partekatzeko lagunekin; adibidez, mezu edo mezu elektroniko bat bidaliz, Bluetooth bidez, etab. |
| • **Bilatu orrian** | Uneko orrian bilatzeko edukia sartzeko aukera ematen du. |
| • **Eskatu ordenagail. gunea** | Ordenagailu-bertsioko webguneak aktibatzeko eta desaktibatzeko. |
| • **Gorde lineaz kanporako** | Konexiorik gabeko irakurketarako gordetzeko webgunea. **Menu** tekla eta, ondoren, **Laster-markak/GORDETAKO ORRIAK** ukituta aurkituko duzu |
| • **Irten** | Fitxa guztiak itxi eta irteteko. |

Ukitu URLaren ezkerreko ikonoa: uneko orriari buruzko informazio gehiago ikus dezakezu.

## 7.2.1 Estekak, historia, deskargak administratzea

**Webgune batean agertzen diren esteka, telefono-zenbaki edo helbide bat administratzeko**

| | |
|---|---|
| • **Esteka** | Ukitu esteka webgunea irekitzeko.<br>Sakatuta eduki esteka, eragiketa gehiago egitea ahalbidetzen duten aukerak irekitzeko; besteak beste, leiho berri batean irekitzea, gordetzea, partekatzea, kopiatzea, etab. |
| • **Telefono-zenbakia** | Ukitu telefono-zenbaki bat dei bat egiteko. |
| • **Helbidea** | Ukitu helbide bat Google Maps ireki eta bilatzeko. |

**Web-aplikazio bat deskargatzeko edo deskargak ikusteko**

Web-aplikazio bat deskargatu aurretik, web-aplikazioen instalazioa aktibatu behar duzu zure telefonoan (ukitu **Ezarpen/Segurtasuna** eta aktibatu **Iturburu ezezagunak** aukera botoia lerratuz).

Elementu bat deskargatzeko, ukitu deskargatu nahi duzun elementua edo esteka.

Deskarga bat ezeztatzeko, ukitu deskargatutako elementua jakinarazpen -panelean, hautatu ezeztatu beharreko elementua eta ukitu baieztatzeko.

Deskargatu dituzun elementuak ikusteko, ukitu eta, ondoren, Deskargak aplikazioa.

### 7.2.2 Gogokoen kudeaketa

#### Gogokoak-en webgune bat gordetzeko

- Iraki Gogokoak-en gorde nahi duzun webgunea.
- Ukitu ikonoa eta, ondoren, .
- Idatzi izena eta kokapena (beharrezkoa baldin bada) eta ukitu **Onartu** baieztatzeko.

#### Gogoko bat irekitzeko

- Ukitu ikonoa eta, ondoren, **Laster-markak**.
- Ukitu ireki nahi duzun gogokoa.
- Sakatuta ere eduki dezakezu aukera-pantaila ikusteko eta, ondoren, **Ireki edo Ireki fitxa berria**n ukitu.

#### Gogoko bat editatzeko

- Ukitu ikonoa eta, ondoren, **Laster-markak**
- Sakatuta eduki editatu nahi duzun gogokoa.
- Ukitu **Editatu laster-marka**, eta sartu zure aldaketak.
- Amaitzean, ukitu **Ados** baieztatzeko.

Sakatuta eduki gogokoen zerrendako gogoko bat, aukera osagarri hauek ikusteko:

| | |
|---|---|
| • **Gehitu lasterbidea hasieran** | Pantaila nagusian Gogokoak atalera lasterbidea gehitzeko. |
| • **Partekatu esteka** | Esteka partekatzeko. |
| • **Kopiatu estekaren URLa** | Gogokoak-en esteka bat kopiatzeko. |
| • **Ezabatu laster-marka** | Gogoko bat ezabatzeko. |
| • **Ezarri hasierako orri gisa** | Orri hau pantaila nagusitzat ezartzeko. |

### 7.2.3 Doikuntzak

Zenbait doikuntza erabil ditzakezu konfiguraziorako. Nabigatzailearen doikuntzetara sartzeko, ukitu nabigatzailearen pantailan eta, ondoren, ukitu **Ezarpenak**.

**Orokorra**

- **Ezarri hasierako orria** Ukitu aukera hori pantaila nagusia zehazteko.
- **Ezarri bilaketa-motorra** Ukitu telefonoaren bilaketa-motorra hautatzeko.
- **Inprimaki-betetze auto.** Lerratu botoia ukitu bakar batez betetzeko web-formularioak.
- **Betetze automatikoaren testua** Ukitu hemen web-formularioetako testua automatikoki betetzeko.

**Ezarpen aurreratuak**

- **Pribatutasuna eta segurtasuna** Ukitu pribatutasunari eta segurtasunari dagozkien doikuntzak eguneratzeko; adibidez, pasahitza gogoratzeko funtzioa baimentzeko, “Ez dut nahi inork nire arrastoari jarraitzerik” modua aktibatzeko eta aplikazio-baimenak kudeatzeko.
- **Erabilerraztasuna** Ukitu letra-tamaina doitzeko.
- **Berrezarri lehenetsiak** Ukitu hau nabigatzailearen doikuntza lehenetsiak berrezartzeko.

# 7.3 Bluetooth-gailuetarako konexioa (1)

Haririk gabeko irismen laburreko bluetooth komunikazio-teknologiari esker, datuak truka daitezke, edo beste bluetooth-gailu batzuetara konektatu, hainbat erabileratarako.

Datuak trukatzeko, ukitu **Ezarpen/Bluetootha**; pantailan agertuko dira zure gailua eta erabilgarri dauden beste gailu batzuk.

**Nola aktibatu bluetootha**

- Ukitu **Ezarpen**.
- Ukitu funtzio hori aktibatzeko/desaktibatzeko.

Telefonoa errazago bereizteko, besteek ikusten duten haren izena alda dezakezu.

- Ukitu **Ezarpen\Bluetootha**.
- Ukitu ikonoa eta, ondoren, **Aldatu gailuaren izena**
- Sartu izen bat eta ukitu **ALDATU IZENA berresteko**.

**Telefonoa bluetooth-gailu batekin sinkronizatzeko edo konektatzeko**

Beste gailu batekin datuak trukatzeko, Bluetooth aktibatu eta trukea egin nahi duzun bluetooth-gailuarekin sinkronizatu behar duzu telefonoa.

- Ukitu Ezarpen\Bluetootha.
- Ukitu **Freskatu**.
- Ukitu sinkronizatu nahi duzun zerrendako Bluetooth gailu bat.
- Elkarrizketa-koadro bat azalduko da; ukitu **SINKRONIZATU** berresteko.

(1) Alcatelen bluetooth-entzungailuak erabiltzea gomendatzen da, telefonoarekiko bateragarri direla gauza frogatua eta bermatua baita. Jo www.alcatel-mobile.com-era Alcatelen bluetooth-entzungailuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero.

- Sinkronizazioa ondo egin bada, telefonoa gailuarekin konektatuko da.

**Bluetooth-gailu batek telefonoarekiko sinkronizazioa eteteko edo konexioa bertan behera uzteko**

- Ukitu sinkronizazioa ezeztatu nahi duzun gailuaren ondoan dagoen ikonoa.
- Ukitu **AHAZTU** berresteko.

# 7.4 Ordenagailu batera konektatzea

USB kableari esker, multimedia-fitxategiak eta bestelako fitxategiak transferitu ahalko dituzu barne-biltegiratzearen eta ordenagailuaren artean.

**Zure telefonoa ordenagailu batera konektatzeko**

Erabil ezazu zure telefonoarekin batera datorren USB kablea ordenagailuko USB ataka batera konektatzeko. USBa konektatuta dagoela dioen ohar bat jasoko duzu.

Ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu **Fitxategiak transferitzeko USBa**

MTP erabili aurretik, ziurtatu kontrolagailua instalatuta dagoela (Windows Media Player 11 edo hortik gorako bat).

Barne-biltegiratzera transferitutako edo deskargatutako datuak aurkitzeko, ukitu **Fitxategiak**. Deskargatutako datu guztiak **Fitxategiak** atalean gordetzen dira; han, multimedia fitxategiak ikusi (bideoak, argazkiak, musika, etab.), fitxategien izena aldatu, telefonoan aplikazioak instalatu eta abar egin ahal izango duzu.

## 7.5 Telefonoaren datu-konexioa partekatzea

Telefonoko datu-konexioa parteka dezakezu ekipo bakar batekin, USB kable baten bidez (USB modema), edota aldi berean zenbait gailurekin (gehienez zortzi), telefonoa WiFi konexio-puntu bilakatuta.

Funtzio hauek erabiliz gero baliteke sare-operadoreak karguren bat kobratzea. Baliteke roamingeko eremuetan tarifa gehigarriak aplikatzea.

### Telefonoaren datu-konexioa USB bidez partekatzea

Erabil ezazu zure telefonoarekin batera datorren USB kablea ordenagailuko USB ataka batera konektatzeko.

- Ukitu **Ezarpen/Gehiago/Loturak eta sare publikoak**.
- Ukitu kommutadorea **USB loturaren** ondoan, funtzio hori aktibatzeko edo desaktibatzeko.

### Telefonoaren datu-konexioa WiFi eremu gisa partekatzea

- Ukitu **Ezarpen/Gehiago/Loturak eta sare publikoak**.
- Ukitu etengailua **WiFi sarea publikoaren** ondoan, funtzio hori aktibatzeko edo desaktibatzeko.

### WiFi eremua izenez aldatzea edo babestea

WiFI eremua aktibatzen baduzu, telefonoko WiFI-sarearen izena (SSID) alda dezakezu, babesteko.

- Ukitu **Ezarpen/Gehiago/Loturak eta sare publikoak**.
- Ukitu **Konfiguratu WiFi partekatzea**, SSID sarea aldatzeko edo sareko segurtasuna berrezartzeko.
- Ukitu **GORDE**.

### WiFi pantailaren funtzioa duen gailuan multimedia-fitxategiak erreproduzitzeko

Telebistarekin parteka ditzakezu telefonoko datuak (musika eta bideoak, besteak beste), eta haririk gabeko konexioz ikusi.

- Ukitu Ezarpen/Pantaila/Wi-Fi Pantaila
- WiFi pantaila erabiltzeko, WiFia aktibatu behar duzu.

## 7.6 Sare pribatu birtualetara konektatzea

Sare pribatu birtualek (SPB) aukera ematen dute tokiko sare babestu baten baliabideetara kanpotik konektatzeko. Enpresek, eskolek eta erakundeek SPBak erabiltzen dituzte haien erabiltzaileak sare lokaleko baliabideetara sar daitezen sarean ez daudenean edo haririk gabeko sare batera konektatzen direnean.

### SPB bat eranstea

- Ukitu **Ezarpen\Gehiago\VPN** eta, ondoren, ukitu +.
- Irekitzen den pantailan, segi sare-administratzailearen jarraibideei SPBaren doikuntzen osagai bakoitza konfiguratzeko.
- Ukitu **GORDE**.

SPBa Configuración de red VPN pantailako zerrendara gehituko da.

SPB bat erantsi aurretik, PIN kode bat edo pasahitz bat ezarri behar duzu telefonorako.

### SPB batera konektatzeko edo deskonektatzeko

SPB batera konektatzeko:

- Ukitu **Ezarpen/Gehiago/VPN**
- Erantsitako SPBak zerrendan agertuko dira; ukitu konektatu nahi duzuna.
- Irekitzen den elkarrizketa-koadroan, idatzi eskatzen dituen egiaztagiriak, eta ukitu **KONEKTATU**.

Deskonektatzeko:

Ireki jakinarazpen-panela, eta ukitu agertzen den jakinarazpena SPBa deskonektatzeko.

### SPB bat editatzeko edo ezabatzeko

SPB bat editatzeko:

- Ukitu **Ezarpen/Gehiago/VPN**
- Erantsitako SPBak zerrendan agertuko dira; ukitu editatu nahi duzun SPBaren ondoan dagoen ikonoa.
- Editatu ondoren, ukitu **GORDE**.

Sare bat ezabatzeko:

- Ukitu ezabatu nahi duzun SPBaren ondoan dagoen ikonoa eta, ondoren, ukitu **EZABATU**.

## 7.7 Gailuetara NFC bidez konektatzea

Irismen laburreko eta maiztasun handiko haririk gabeko komunikazio -teknologia bat da NFC (eremu hurbileko komunikazioa; ingelesez, Near Field Communication), zeinak aukera ematen baitu elkarrengandik gutxi asko 10 cm-ra dauden gailuen artean datuak trukatzeko.

Kontakturik gabeko ordainketa-sistemetan erabil daitezke NFC gailuak, kreditu-txartelek edo txartel adimendunek (smartcard)erabiltzen dituztenen antzekoetan, eta aukera ematen dute mugikorraren bidez ordainketa -modu horiek ordezkatzeko edo osatzeko. sare sozialetan ere erabil daiteke NFC, edo kontaktuak, argazkiak, bideoak eta fitxategiak partekatzeko, bai eta mugikorretarako jokalari anitzeko jokoetan parte hartzeko ere.

NFC funtzioa aktibatzeko:

- Arrastatu beherantz jakinarazpen-panela eta ukitu **Ezarpen** aukerara sartzeko.
- Ukitu **Gehiago** eta lerratu botoia NFC funtzioa aktibatzeko. Beste hau ere egin dezakezu: jakinarazpen-panela beherantz arrastatu eta NFC ikonoa ukitu aktibatzeko.

**alcatel IDOL 4:**



# 8 Multimedia-aplikazioak

## 8.1 Kamera/bideokamera ....................................

Mugikor honek kamera eta bideokamera ditu, argazkiak ateratzeko eta bideoak grabatzeko.

Kamera erabili aurretik, ziurtatu lentea babesteko estalkia kendu diozula, irudiaren kalitateari eragin ez diezaion.

Argazki edo bideo bat egiteko, ukitu pantaila nagusian eta, ondoren, ukitu Kamera.




Ukitu hau doikuntzak eguneratzeko.

Ukitu pantaila fokuratzeko.

Elkartu eta banandu bi hatz zooma gerturatzeko eta urruntzeko.

Ukitu hau egindako argazkiak edo bideoak ikusteko.

Ukitu hau argazki bat ateratzeko.

Ukitu hau aurreko kameratik atzekora aldatzeko, eta alderantziz.

Ukitu hau flash-modua aukeratzeko.

Lerratu hatza ezkerrerantz edo eskuinerantz pantailaren modua aldatzeko: eskuzkora, panoramikora, automatikora, etab..

Ukitu hau Bideoa modura aldatzeko.

**Argazki bat ateratzeko**

Pantailak bisorearen funtzioa egiten du. Fokatu objektua edo paisaia bisorean, eta, behar izanez gero, ukitu pantaila fokuratzeko; ondoren, ukitu ikonoa argazkia ateratzeko. Automatikoki gordeko da argazkia.

**Bideo bat grabatzeko**

Aldatu Kamera modutik Bideoa modura. Jarri objektua edo paisaia bisorean, eta ukitu ikonoa grabatzen hasteko. Ukitu ikonoa, grabazioa eteteko. Bideoa automatikoki gordetzen da.

**Ateratako argazkiak edo egindako bideoak bistaratzen ari zaren bitartean dituzun beste aukera batzuk**

- Lerratu hatza ezkerrerantz edo eskuinerantz, egindako argazkiak edo bideoak ikusteko.
- Argazki edo bideo bat partekatzeko, ukitu eta, ondoren Gmail, Bluetooth, MMS, eta abar.
- Ukitu ikonoa edo lerratu hatza behera kamerara itzultzeko.

## 8.1.1 Moduak eta doikuntzak

Argazki bat atera aurretik, lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera kameraren modua aldatzeko.

**Argazkia ateratzeko modua (atzeko kamera):**

- **AUTOMATIKOA** Modu automatikoa aktibatuta dago.
- **PANORAMIKOA** Ukitu hor argazkia panoramikoaren funtzioa aktibatzeko. Sakatu argazkiak ateratzeko botoia argazki panoramikoa ateratzen hasteko, eta mugitu telefonoa argazkia atera nahi duzun norabidean, bi lerroak gainjarri arte. Hutsune guztiak bete direnean, argazkia automatikoki gordeko da. Hutsune guztiak bete ez badira, ukitu berriro argazkiak ateratzeko botoia, argazkia gordetzeko.
- **ESKUZ** Ukitu hor eskuz doitzeko ISOa, argazkiak ateratzeko abiadura, fokuratze-distantzia, zurien balantzea eta abar.
- **KAMERA GELDOA** Ukitu bideoak kamera geldoan grabatzen hasteko.
- **MIKROBIDEOA** Sakatuta eduki mikrobideoak grabatzen hasteko.

## Ezarpenak

Ukitu aukera hauek konfiguratzeko:

### Argazkia

- **Tamaina** Ukitu hau argazkiaren tamaina hautatzeko.
- **Sareta** Lerratu botoia lauki-ikuspegia aktibatzeko edo desaktibatzeko. Funtzio honek pantaila zati berdinetan zatitzen du, eta argazki hobeak egiten laguntzen du, elementuak laukiekin lerroka baitaitezke (adibidez, horizontea edo eraikinak).
- **Arreta-soinua** Lerratu botoia soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko.

### Bideoa

- **Atzeko kamerako bideoa** Ukitu bideoen grabazio-kalitatea hautatzeko.
- **EIS** Lerratu botoia irudiaren egonkortze elektronikoko funtzioa aktibatzeko (EIS). Horrek aukera ematen du esposizioan kamera kameraren mugimenduari lotutako lausotzea gutxitzeko.

**Orokorra**

- **Memoria** Ukitu telefonoa edo argazkiak gordetzeko SD txartela hautatzeko.
- **GPS etiketatzea** Lerratu botoia argazkiak eta bideoak etiketatzeko funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko. GPS kokapen-zerbitzuak eta haririk gabeko sareak konektatuta daudela egoten da eskuragarri aukera hori.
- **Kliskagailua** Lerratu botoia argazkiak egitean obturadorearen soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko.
- **Marra-aurkakoa** Ukitu kameraren aukerak eta banden kontrakoa doitzeko.
- **Berrezarri lehenetsiak** Ukitu eta baieztatu, kameraren doikuntzak konfiguratzeko.

## 8.2 Galeria...........................................................

Multimedia-edukiak eta bideoak erreproduzitzeko eta argazkiak ikusteko da galeria. Argazki eta bideoetarako zenbait zerbitzu aurreratu ere eskaintzen ditu.

Kargatutako argazkiak edo bideoak ikusteko, ukitu pantaila nagusian eta, ondoren, ukitu **Galeria**.




Ukitu hori **Galeria**n ageri diren elementuak bistaratzeko.

Ukitu hori argazkiak aukeratu eta eragiketa gehiago egiteko.

Ukitu hori albumetara sartzeko.

## Argazkiak ikusteko edo bideoak erreproduzitzeko

Argazkiak eta bideoak albumetan bistaratzen dira **Galeria** aukeran.



- Ukitu album bat. Argazki edo bideo guztiak pantailan banatuta geratuko dira.
- Ukitu argazkia, argazkia ikusteko, edo ukitu bideoa, erreproduzitzeko.
- Lerratu ezkerrerantz edo eskuinerantz, aurreko edo ondorengo bideoak eta argazkiak ikusteko.

**Argazkiekin lan egitea**

Ukitu album bat eta, ondoren, lerratu hatza eskuinera edo ezkerrera irudiak ikusteko.

Ukitu landu nahi duzun irudi bat; ukitu ikonoa hautatutako irudi bat ezabatzeko. Ukitu hautatutakoak partekatzeko.

Ukitu kontaktuaren ID, pantailaren atzealde eta abar gisara ezartzeko.

Ukitu aukera gehiagotara sartzeko.



**Sortakako funtzionamendua**

Galeriak aukera ematen du zenbait argazki edo bideo hautatu eta sortaka lan egiteko.

Ireki galeriaren leiho nagusia edo album bat, ukitu ⋮ eta hautatu **Hautatu albuma** sortakako funtzionamendua aktibatzeko (beste hau ere egin dezakezu: album bat edo irudi bat sakatuta eduki). Ondoren, ukitu landu nahi dituzun bideoak edo irudiak. Ukitu ikonoa hautatutako elementuak ezabatzeko. Ukitu hautatutako fitxategiak partekatzeko.

## 8.3 Musika..............................................................

Telefonoan biltegiratutako musika-fitxategiak erreproduzitzeko aukera ematen du aplikazio horrek. USB kable bat erabilita, musika-fitxategiak deskarga ditzakezu ordenagailu batetik telefono batera.

Musika-fitxategi bat erreproduzitzeko, ukitu pantaila nagusian eta, ondoren, ukitu Musika.

### 8.3.1 Musika erreproduzitzea

Ukitu entzun nahi duzun abestia.




❶ Ukitu hau menura sartzeko.

❷ Ukitu hau abestien bistaratzeko era aldatzeko.

❸ Ukitu hau abesti bat bilatzeko.

❹ Ukitu hau funtzio gehiagotara sartzeko.

❺ Ukitu hau abestia erreproduzitzeko edo gelditzeko.

❻ Ukitu hau hurrengo abestia erreproduzitzeko.

Abestiak Musika aukerarekin erreproduzitzean, erabilgarri jarraitzen dute kantuak eten, erreproduzitu edo saltatzeko funtzioek, pantaila blokeatuta egonda ere.

# 9 Beste zenbait ..............................

## 9.1 Fitxategiak kudeatzea..................................

Telefonoan fitxategiak kudeatzeko, ukitu pantaila nagusian, eta, gero, ukitu **Fitxategiak**.

**Fitxategiak** aukerak berdin funtzionatzen du kanpoko SD txartelarekin zein telefonoaren biltegiarekin.

**Fitxategiak** aukerak telefonoan gordetako datu guztiak bistaratzen ditu: aplikazioak, Google Play Storetik, YouTubetik eta beste kokaleku batzuetatik deskargatutako multimedia-fitxategiak, bideoak, ateratako argazki eta audio-fitxategiak, bluetooth eta USB kable bidez transferitutako datuak, etab.

PCtik telefonora aplikazio bat deskargatzen duzunean, aplikazioa fitxategien Gestión de archivos aukeran ikus dezakezu, eta hura ukitu telefonoan instalatzeko.

**Gestión de archivos**ek aukera ematen du eragiketa hauek eraginkortasunez egiteko: karpetak eta azpikarpetak sortzeko, karpetak edo fitxategiak irekitzeko, bistaratzeko, izena aldatzeko, mugitzeko, kopiatzeko, ezabatzeko, erreproduzitzeko, partekatzeko, eta abar.

## 9.2 Soinu-grabagailua..........................................

Ahots-grabazio bat egiteko, ukitu pantaila nagusian eta, ondoren, ukitu **Grabagailua**.

**Grabagailua** aukera erabilita ahotsa eta soinua graba dezakezu, zenbait segundoz edo zenbait orduz.

## 9.3 Iparrorratza ..........................................................

Mugitu telefonoa, “8” bat eginez, haren kokapen zehatza jakiteko.

## 9.4 Boost ...................................................................

Boost aplikazioari esker, telefonoaren  biltegiari eta bateriaren egoerari buruzko informazioa eskura dezakezu, bai eta haren errendimenduari buruzkoa ere. Aplikazio hori erabilita, zure teñefonoa kudeatu eta hobetu egin dezakezu.

## 9.5 Irratia ..............................................................

Zure telefonoaren irratiak[1] RDS[2] funtzioa du. Zure telefonoa irrati arrunt gisa erabil dezakezu, eta kanalak gorde. Pantailan irratsaioari buruzko informazioa ikus daiteke Visual Radio zerbitzua eskaintzen duten kanalak sintonizatuz gero.

Irrati bat entzuteko, ukitu pantaila nagusian eta, ondoren, ukitu **Irratia**.

Irratia entzuteko, entzungailuak konektatu behar dituzu (antena -lana egiten dute).

(1) Irratiaren kalitatea une horretan zauden eremuan irrati-kate horrek duen estalduraren araberakoa da.

(1) Sare-operadorearen eta merkatuaren arabera.




| | |
|---|---|
| • **Gorde kanala** | Aukera ematen du irrati-zerrendan sartzeko une horretan sintonizatuta dagoen irratia. |
| • **Editatu izena** | Irrati-katearen izena editatzeko. |
| • **Bilatu kanalak** | Ukitu hau kanalak bilatzeko. |
| • **Ezabatu** | Kanala ezabatzeko. |
| • **Sartu maiztasuna** | Kanala aktibatzeko maiztasuna eskuz sartzeko. |
| • **Irten** | Irratia itzaltzeko. |

## 9.6 Xender ..........................................................

Xender erabilita, zure telefonoko fitxategiak beste edozein gailutara transferi ditzakezu; besteak beste, PC/MAC-era eta Android/iOS/Windows-ekiko telefonoetara.

## 9.7 Waves MaxxAudio ........................................

Ukitu musikarako eta filmetarako soinu-efektu bat hautatzeko.

## 9.8 Beste aplikazio batzuk[1]........................................

Telefonoan aurrez instalatuta daude sail honetan aipatutako aplikazioak. Instalatuta dauden hirugarren batzuen aplikazioei buruzko hitzaurre labur bat irakurtzeko, begiratu telefonoarekin batera eman dizuten liburuxka. Bestalde, zure telefonotik Google Play Storera sartuz ere milaka aplikazio deskarga ditzakezu.

(1) Herrialdearen eta operadorearen arabera egongo dira erabilgarri aplikazioak.

# 10 Google aplikazioak................

Giogleren aplikazioak aurrez instalatuta daude telefonoan, eraginkortasun gehiagorekin lan egin dezazun eta bizitzaz gehiago goza dezazun.

Eskuliburu honetan aplikazioak labur aipatzen dira. Ezaugarriak xeheago jakiteko eta erabiltzailearen eskuliburua eskuratzeko, ikus gaiari buruzko webguneak edo aplikazioetan ematen diren azalpenak.

Funtzio guztiak erabiltzeko, Google kontu batekin erregistratzea gomendatzen da.

## 10.1 Chrome

Interneterako web-nabigatzaile bat da.

Nabigatzailea duten gailu guztien markagailuak, nabigazio-historia eta doikuntzak zure Google kontuarekin sinkroniza daitezke.

## 10.2 Gmail

Googleren onlineko posta elektronikoko zerbitzua da Gmail, eta telefonoa konfiguratzen den lehenengo aldian konfiguratzen da. Hau egin dezakezu aplikazio hori erabiliz: mezu elektronikoak jaso eta bidali, mezu elektronikoak etiketa bidez kudeatu eta artxibatu, etab. Gmail-eko zure kontuarekin automatikoki sinkroniza daitezke mezuak.

## 10.3 Maps

Google Map-ekin, hauek ikus ditzakezu: satelite bidezko irudiak, kale-izendegiak, kaleen 360°-ko ikuspegi panoramikoak eta zirkulazioaren egoera denbora errealean. Gainera, oinez, autoz edo garraio publikoan egiteko ibilbideak planifika ditzakezu. Aplikazio horri esker, zure kokapena jakin dezakezu, tokiak bilatu ditzakezu eta zure bidaietarako bideak iradokitzea eska dezakezu.

## 10.4 YouTube

YouTube aplikazioarekin bideoak online parteka ditzakezu; erabiltzaileak bideoak kargatu, ikusi eta parteka ditzake. Besteak beste, eduki hauek daude aukeran: bideoak, telebista-saioak, musika-bideoak, eta beste eduki batzuk (bideoblogak, film laburren bideo originalak eta bideo hezitzaileak). Haren streaming-funtzioaren bidez, bideoak ia Internetetik deskargatzen ari diren unean bertan ikus ditzakezu.

## 10.5 Play Store

Android sistema eragilerako aplikazioen denda ofiziala da; denda horretan, erabiltzaileek aplikazioak eta jokoak deskarga ditzakete. Aplikazio batzuk doan dira, eta beste batzuk ordaindu egin behar dira deskargatzeko.

Play Storen, bilatu behar duzun aplikazioa, deskargatu, eta, ondoren, segi instalazioko jarraibideei, aplikazioa instalatzeko. Horrez gain, aplikazioak desinstalatu eta eguneratu daitezke eta deskargak kudeatu.

## 10.6 Drive

Fitxategiak biltegiratzeko eta sinkronizatzeko Googlek sortutako zerbitzua da; erabiltzaileei aukera ematen die fitxategiak hodeian gordetzeko, partekatzeko eta editatzeko.

Fitxategiak Driven gorde daitezke, eta edozein gailutatik horietara sar zaitezke Googleren kontuan saioa hasita. Fitxategiak eta karpetak pribatuan parteka daitezke Googlen kontua duten beste erabiltzaile partikular batzuekin.

## 10.7 Play Music

Musika transmitititzeko eta biltegiratzeko zerbitzua da, onlinekoa eta Googlerena.

Abesti pila bat kargatu eta entzun ditzakezu doan. Internetera konektatutako gailuetarako musika-transmisioa eskaintzeaz gain, Google Play Music aplikazioan musika gorde dezakezu, eta Interneteko konexiorik gabe entzun. Play Musicen bidez eskuratutako abestiak automatikoki gehitzen dira erabiltzailearen kontura.

## 10.8 Play Movies & TV

Google Play Movies & TV aplikazioaren bidez, telebistako filmak eta saioak ikus ditzakezu online. Horrez gain, filmak eta telebistako saioak deskarga ditzakezu, Interneteko konexiorik gabe ikusteko. Eduki batzuk alokatu edo erosi egin behar dira nahitaez.

## 10.9 Hangouts

Google Hangouts plataforma komunikatzeko da, Googlek sortua, eta berehalako mezularitza, bideo-txata, SMSak eta VOIPa ditu. Lagunak gehitu behar dituzu, eta, ondoren, haiekin txateatzen has zaitezke. Hangouts bidez webean edo gailuan gehitutako lagun guztiak lagunen zerrendan agertzen dira.

## 10.10 Photos

Google Photos-ek argazkiak eta bideoak gordetzen ditu eta horien segurtasun-kopiak egiten ditu. Argazkiak automatikoki aztertzen ditu, eta taldeka antolatzen, behar dituzunean bizkor aurkitu ditzazun.

## 10.11 Keep

Oharrak hartzeko Googlek garatutako aplikazioa.

Argazkiak eta zerrendak gehi ditzakezu oharretan, eta ahots-mezuak grabatu. Gainera, orduen edo tokien araberako gogorarazleak jarri diezazkiekezu oharrei. Google Keep-ekin oharrak etiketen bidez sailkatu ditzakezu, eta oharrak bilatu ditzakezu alderdi hauek kontuan hartuta: zer koloretakoak diren, ea gogorarazlea, audioa edo argazkirik duten, zerrenda den, etab.

# 11 Ezarpen..............................

Ezarpen aukerara joateko, ukitu pantaila nagusian, eta, ondoren, ukitu Ezarpen.

## 11.1 Haririk gabeko konexioak eta sareak

### 11.1.1 WiFia

WiFi konexioen bidez Interneten nabiga dezakezu SIM txartela erabili beharrik gabe, haririk gabeko sare baten estaldura duzunean. Egin behar duzuna da **WiFi**-aren pantailan sartu, eta sarbide-puntu bat konfiguratu, telefonoa haririk gabeko sarera konektatzeko.

WiFi-aren erabilerari buruzko jarraibide xeheak nahi izanez gero, ikusi "**7.1.2 WiFi-a**".

### 11.1.2 Bluetooth-a

Bluetootharen bidez datuak truka ditzakezu (bideoak, argazkiak, musika, eta abar), Bluetooth teknologia duten eta gertu dauden beste gailu batzuekin (telefonoa, ordenagailua, inprimagailua, entzungailuak, ibilgailuetako kita eta abar).

Bluetoothari buruzko informazioa lortzeko, ikusi "**7.3 Bluetooth-gailuetarako konexioa**".

### 11.1.3 SIM txartelak[1]

Ukitu hautatzeko SIM 1 edo SIM 2 erabili nahi baduzu sarera konektatzeko, deiak egiteko edo SMS mezuak bidaltzeko.

(1) 6055K eta 6070K-rako bakarrik

### 11.1.4 Datuen erabilera

**Datu mugikorrak**

Beste operadore batzuen sare mugikorretan daturik ez baduzu transmititu behar, desaktibatu **datu mugikorrak** roamingeko gastu handirik ez izateko, batez ere daturik kontratatu ez baduzu mugikorrerako.

**Datu mugikorren muga ezartzea**

Ezarri **sare mugikorreko datuen muga** aktibatuta, telefono mugikorraren datu-konexioa desaktibatu egingo da ezarritako mugara iritsitakoan. Horrez gain, datuen erabilera-ziklo bat ezar dezakezu, zure telefonoko datuen erabilerari lotutako estatistikak eta aplikazioak ikusteko.

Telefonoak datuen erabilera neurtzen du; hala ere, baliteke operadoreak beste kalkulu bat egitea.

### 11.1.5 Gehiago\Hegazkin modua

Aktibatu Hegaldi modua etengailua, haririk gabeko konexio guztiak (WiFi-a, bluetootha, eta abar) aldi berean desaktibatzeko.

### 11.1.6 Gehiago\NFCa

Ukitu etengailua NFCa aktibatzeko eta desaktibatzeko.

Telefonoak beste gailu bat ukitzen duenean datuak trukatzeko aukera ematen du funtzio horrek.

### 11.1.7 Gehiago/Android Beam

NFCa aktibatuta dagoela aktiba daiteke Android Beam.

Aplikazioaren edukia NFC bidez transmititzeko aukera ematen du funtzio horrek.

### 11.1.8 Gehiago\USB modema eta WiFi-eremua

Funtzio honekin, zure telefono mugikorraren datu-konexioa parteka dezakezu USB baten bidez edo WiFiaren sarbide-puntu gisa (ikusi "**7.5 Telefonoaren datu-konexioa partekatzea**").

### 11.1.9 Gehiago\SPBa

Sare Pribatu birtual mugikorra (SPB mugikorra edo SPBm) erabilita, sareko baliabideetara edo softwareko aplikazioetara sar zaitezke gailu mugikorrekin etxeko sarean, haririk gabeko beste sare baten bidez edo kable bidez konektatzen zarenean. SPBak erabiltzen dira erabiltzaileek aplikazioen saioak etengabe irekita eduki behar dituztenean, laneko jardunean, haririk gabeko sare batera baino gehiagotara konektatzen direnean, estaldura aldi baterako galtzen dutenean edo bateria aurrezteko gailuak geldiarazi eta berrabiarazten dituztenean. SPB konbentzionalak ez ditu onartzen gertaera-mota horiek, sareko tunela eten egiten baita, eta horrek eragiten du aplikazioak deskonektatzea, itxaroteko denbora agortzea eta akatsak sortzea; baita gailu informatiko bera kolapsatzea ere.

SPBari buruzko informazioa lortzeko, ikusi "**7.6 Sare pribatu birtualetara konektatzea**".

### 11.1.10 Gehiago\Sare mugikorrak

**Roamingeko datuak**

Beste operadore batzuen sare mugikorretan daturik ez baduzu transmititu behar, desaktibatu **Ibiltaritzako datuak** roamingeko gastu handirik ez izateko.

### Sareko modu lehenetsia

Nahi duzun sareko modua konfigura dezakezu: GSM/WCDMA, LTE, etab.

### LTE 4G modu hobetua

Ukitu komunikazio-kalitatea hobetzeko.

### Roamingeko gogorarazleak erakustea

Ukitu hautatzeko, roaming moduaren gaineko gogorarazle bat bistaratzea nahi baduzu..

### APNa

Menu horri esker, zure gogoko sarea hauta dezakezu.

### Sare-operadoreak

Sare-operadore bat aukera dezakezu.

## 11.1.11 Mugikor plana

Ukitu mugikor plana hautatzeko.

## 11.1.12 Larrialdi-alertak

Ukitu larrialdi-alertetan doikuntzak egiteko, bai eta alertak eta alerta-tonuak bistaratzea nahi baduzu ere.

# 11.2 Gailua

## 11.2.1 Aurpegierak

Eragiketa bizkorretarako, keinu hauek erabil ditzakezu:

- **Ukipen-keinurik gabeko IUa**(1) Hurbildu pantaila, hatzen bidez, efektua bistaratzeko.
- **Eskularru modua**(1) Gaitu Eskularruak modua, eskularru finak jantzita dituzula pantaila ukitu eta ukipen -funtzioak erabiltzeko.
- **Biratu isilarazteko** Lerratu botoia, sarrerako deiak telefonoa buruz behera jarrita isilarazteko.
- **Egin klik bikoitza pantailan** Lerratu botoia, bi aldiz ukituta pantaila aktibatzeko edo desaktibatzeko aukera ematen duen funtzioa aktibatzeko.
- **Pantaila beltzeko keinua** Aktibatu pantaila beltzeko keinua, eta marraztu han letra bat aplikazio batera azkar iristeko.

## 11.2.2 Pantaila

Menu horretan, hauek doitu ditzakezu: pantailaren distira, pantaila-atzealdea, letra-tamaina, pantailako kolorearen tenperatura, eta abar.

**Sakatu bi aldiz pizteko tekla kamera irekitzeko**

Funtzio hori aktibatzen bada, azkar irits zaitezke kamerara, bi aldiz sakatuta pizteko botoia telefonoa desblokeatu gabe.

(1) Alcatel IDOL 4S-rako bakarrik

## Alderantzikagarria

Funtzio hori aktibatzen bada, telefonoa buruz behera dagoela erantzun diezaiekezu deiei.

## Matrix FlipCase

Funtzio hori aktibatzen bada:

- Argiztatu egingo da zorroa, ordua eta denbora erakusteko, pizteko botoia sakatuta edo pantailaren eremua bi aldiz ukituta.
- Lerratu hatza ezkerrerantz edo eskuinerantz abestia edo aurreko/hurrengo kanala erreproduzitzeko, irratia edo musika-erreproduzitzailea piztuta dela.
- Igorlearen izena edo sarrera-deiaren telefono-zenbakia bistaratuko da zorroan. Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera dei bat hartzeko edo baztertzeko; esekitzeko, berriz, beherantz lerratu.
- Gertaeren xehetasunak gogoratzen dizkizu zorroak.

## Errealitate birtualaren hasiera automatikoa

Funtzio hori aktibatzen bada, automatikoki irekitzen da errealitate birtualaren aplikazio-pantaila, errealitate birtualeko betaurrekoez 3D irudiak edo filmak ikusteko entzungailuak konektatzean.

## Errealitate birtualeko betaurrekoak[1]

- Ireki errealitate birtualeko kutxaren goiko estalkia, telefonoarekin batera ematen dutena, eta han sartu telefonoa. Ondoren, jarri estalkia.
- Sakatu kutxaren alboan dagoen botoi biribila beheko aldea irekitzeko.
- Hartu kaxa eta ikusi errealitate birtualeko film bat.

(1) Herrialdearen arabera. Jarraibide zehatzagorik nahi baduzu, begiratu telefonoarekin batera datorren gidan.

### 11.2.3 Pantaila blokeatzea

**Aplikazioetarako lasterbideak**

Ukitu blokeo-pantailan bistaratzen diren aplikazioetarako lasterbideak pertsonalizatzeko.

**WallShuffle**

Funtzio hori aktibatzen bada, pantaila-atzealde desberdinak azalduko dira blokeo-pantailan pizteko botoia sakatzen duzun bakoitzean telefonoa desblokeatzeko.

**Pantaila-blokeoa**

Ukitu pantaila desblokeatzeko modua ezartzeko. Adibidez, honela desblokeatu dezakezu telefonoa: pantaila lerratuz, pasahitz bat sartuz, eredu bat marraztuz, etab.

**Eredua ikusgai bihurtzea**

Kasu honetan bakarrik bistaratzen da aukera hori: telefonoa desblokeatzeko metodotzat Eredua hautatzean. Ukitu eredua bistaratzeko.

**Blokeo automatikoa**

Ukitu hautatzeko zenbat denbora behar den pantaila itzali ondoren telefonoa blokeatzeko.

**Pantaila-blokeoaren mezua**

Ukitu hau blokeatutako pantailan jabeari buruz azalduko den informazioa sartzeko.

### 11.2.4 Soinuak eta jakinarazpenak

Ukitu deien eta jakinarazpenen tonuak, musika eta beste audio-doikuntza batzuk doitzeko.

- **Soinua** Ezarri multimedia-fitxategien, dei-tonuen eta alarmen bolumena.
- **Entzungailu modua** Markatu kontrol-laukia, entzungailuaren modua gaitzeko. Entzungailuak konektatuta baldin badaude bakarrik entzungo dira tonuak.
- **Egin dardara deietan** Lerratu botoia deiak jasotzean bibrazioa aktibatzeko.
- **MaxxAudio** Ukitu musikarako eta filmetarako soinu-efektu bat hautatzeko.
- **Ez molestatu** Ukitu alarmak, gogorarazpenak, deiak eta abar baimentzeko Ez molestatu modua aktibatuta dela.
- **Telefonoaren dei-tonua** Ukitu hau sarrerako deien tonua aukeratzeko.
- **Jakinarazpen tonu lehenetsia** Ukitu hau jakinarazpenetarako soinu lehenetsia aukeratzeko.
- **Desaktibatu pizteko/itzaltzeko tonua** Ukitu pizteko eta itzaltzeko txirrina aktibatzeko/desaktibatzeko.
- **Beste soinu batzuk** Ukitu hauek ezartzeko: teklatuaren tonuak, pantaila blokeatzeko soinuak, ukitutakoan egin behar dituen soinuak eta bibrazioak.
- **Jakinarazpen-argia** Ukitu jakinarazpen bat jasotzean argia piztea nahi duzun ezartzeko.
- **Gailua blokeatuta dagoenean** Honela konfigura dezakezu: jakinarazpenaren eduki osoa bistaratzeko edo ez bistaratzeko gailua blokeatuta dagoela.

- **Aplikazioen jakinarazpenak** — Ukitu aplikazio-jakinarazpenak blokeatzeko edo haien lehentasunak ezartzeko.
- **Jakinarazpenetarako sarbidea** — Ukitu hau, jakinarazpenaren entzuleak zein diren ikusteko.

### 11.2.5 Boom tekla

Boom tekla aktibatuta badago:

- Efektu meteorologikoak bistaratzeko, sakatu tekla hau pantaila nagusian.
- Bat-bateko argazki bat egiteko, sakatu tekla hau telefonoa blokeatuta dagoela.
- Argazki-ateratze jarraitua abiarazteko, sakatuta eduki tekla hau, telefonoa blokeatua dela.
- Sakatu tekla hau kantu bat edo film bat erreproduzitzean audio-efektuak aktibatzeko.
- Sakatu tekla hau dei bat egitean ahotsaren kalitatea hobetzeko.
- Argazki-collage bat egiteko, sakatu tekla hau Galeriako Momentosen.
- Sakatu tekla hau film bat ikustean efektu bereziak aktibatzeko; adibidez, sekuentzia-aldaketa.
- Boom teklaren funtzioa ere pertsonaliza daiteke. Adibidez, pantaila-argazkiak egiteko erabil daiteke, edo pantaila desblokeatuta dela aplikazioak exekutatzeko.
- Telefonoa blokeatuta dela (pantaila itzalita):

  - sakatu behin pantaila aktibatzeko;

  - sakatu bi aldiz bat-batean argazki bat egiteko (800 ms);

  - sakatuta eduki argazki-ateratze jarraitua egiteko.

### 11.2.6 Aplikazioak

Ukitu telefonoan instalatutako aplikazioei buruzko xehetasunak ikusteko, haien datuak kudeatzeko eta haiek geldiarazteko.

Aplikazioaren baimenak menuan, aplikazio-baimenak eman ditzakezu; adibidez, **kamerara**, **kontaktuetara**, **kokalekura** eta abarretara sartzekoak.

**Jakinarazpenak** menuan, berriz, hau konfigura dezakezu: aplikazio jakin baten jakinarazpenak blokeatzea nahi duzun, eduki konfidentziala gordetzea, etab.

### 11.2.7 Biltegiratzea eta USBa

Erabili doikuntza hau zure telefonoaren edukiera osoa eta erabilgarria kontrolatzeko.

### 11.2.8 Bateria

Ukitu kudeaketa-pantailako edozein kategoria zure energia-kontsumoa zenbatekoa den jakiteko.

Energiaren erabilera doitu dezakezu, pantailaren distira edo itxarote -denbora doituta Pantalla aukeran.

### 11.2.9 Memoria

Ukitu memoria osoa eta aplikazioetan erabilitakoa ikusteko.

### 11.2.10 Erabiltzaileak

Ukitu telefonoari kontu bat gehitzeko.

# 11.3 Pertsonala

## 11.3.1 Kokapena

### Aktibatuta

Ukitu WiFi sareetako eta mugikorretako informazioa erabiltzeko non zauden —gutxi asko— jakiteko eta Google Mapsen erabiltzeko, edo bilaketak egiteko... Aukera hori hautatzean, galdetuko zaizu onartzen duzun zure kokapena Googleren kokapen-zerbitzuarekin partekatzea, zure izena azaltzen ez dela betiere.

### Modua

Ukitu hau Doitasun handia, Bateria-aurrezpena edo gailua bakarrik hautatzeko.

- **Zehaztasun handia:** GPSa, WiFia eta sare mugikorrak erabiltzeko kokapena bilatzeko.
- **Bateria aurreztea:** WiFia erabili kokapena zehazteko.
- **Gailua soilik:** GPSa erabili kokapena zehazteko.

### Azken kokapen-eskaerak

Azken kokapen-eskaerak erakusten ditu zerrenda honek.

## 11.3.2 Segurtasuna

### Enkriptatu telefonoa

Zenbakizko PIN bat, eredu bat edo pasahitz bat behar da, telefonoa pizten duzun bakoitzean deszifratzeko.

### Funtzionamendu okerraren prebentzioa[1]

Lerratu botoia, bi ukitu emanda, desblokeo moduan funtzionamendu okerra prebenitzeko.

### SIM txartelaren blokeoa

- Lerratu **BlokeatuSIM txartelaren botoia** SIM txartela PIN kodearekin blokeatzeko.
- Sakatu **Aldatu SIM PIN**a, PIN kodea aldatzeko.

### Pasahitzak ikusgai

Lerratu botoia pasahitzak bistaratzeko haiek idaztean.

### Gailuen administratzaileak

Ukitu hau, gailuaren administratzaileak ikusteko edo desaktibatzeko.

### Iturburu ezezagunak

Lerratu botoia webguneetatik, posta elektronikotik edo Google Play Storeko beste leku batzuetatik eskuratutako aplikazioak instalatzea baimentzeko.

Telefonoa eta datu pertsonalak babesteko, jatorri fidagarrietako aplikazioak bakarrik deskargatu (adibidez, Google Play Store).

### Kredentzial fidagarriak

Ukitu hau, CS ziurtagiri fidagarriak bistaratzeko.

### Instalatu memoriatik

Ukitu hau egiaztagiri enkriptatuak instalatzeko barne-biltegitik edo SD txarteletik.

[1] Alcatel IDOL 4S-rako bakarrik

**Garbitu kredentzialak**

Ukitu hau, ziurtagiri guztiak ezabatzeko.

**Pantaila ainguratzea**

Funtzio hau aktibatuz gero, leiho bat bistaratuko da **Informazio orokorra** botoia ukitutakoan, eta, ondoren, ainguratze-ikonoa. Kasu horretan, erabiltzaileak ezingo du beste leiho batera sartu edo beste aplikaziorik ireki.

Leihoa ainguratuta uzteko, luze sakatu **atzera** egiteko tekla eta **Informazio orokorra** tekla aldi berean, eta, ondoren, idatzi pantaila desblokeatzeko pasahitza edo marraztu desblokeatzeko eredua.

**Erabilera-sarbidea duten aplikazioak**

Ukitu aukera hau erabiltzen ari zaren aplikazioen eta erabilera-maiztasunaren segimendua egin dezaketen aplikazioak bistaratzeko. Lerratu botoia baimena aktibatzeko edo desaktibatzeko.

## 11.3.3 Hizkuntza eta teklatua

Erabili hizkuntza- eta idazte-doikuntzak, telefonoaren testuaren hizkuntza hautatzeko eta pantailako teklatua konfiguratzeko. Ahotsa sartzeko doikuntzak eta erakuslearen abiadura ere konfiguratu ditzakezu.

**Hautatu eskualdeko ezarp.**

Ukitu aukera hau nahi duzun hizkuntza eta eskualdea aukeratzeko.

**Zuzentzaile ortografikoa**

Lerratu botoia, sistemak hitzak iradoki ditzan.

### Hiztegi pertsonala

Ukitu aukera hau hiztegira gehitu dituzun hitzen zerrenda irekitzeko. Ukitu hitz bat, editatzeko edo ezabatzeko. Ukitu eransteko botoia (+), hitzak gehitzeko.

### Uneko teklatua

Ukitu aukera hau testua idazteko modu lehenetsi bat hautatzeko.

### Ahots-sintesiaren irteera

- **Motor hobetsia:** Ukitu aukera hau ahotsa sintetizatzeko motor lehenetsi bat hautatzeko. Ukitu doikuntza-ikono bat , motor bakoitzaren aukera gehiago bistaratzeko.
- **Ahotsaren abiadura**: Ukitu hau, ahots-sintetizatzailearen abiadura hautatzeko elkarrizketa-koadroa irekitzeko.
- **Entzun adibidea:** Ukitu hau, ahots-sintetizatzailearen adibide labur bat erreproduzitzeko, uneko konfigurazioarekin.

### Erakuslearen abiadura

Ukitu hau, erakuslearen abiadura aldatzeko elkarrizketa-koadroa irekitzeko. Ukitu **Ados**, berresteko.

### 11.3.4 Babeskopiak/Berrezartzea

**Egin datuen babeskopia**

Ukitu etengailua telefonoaren doikuntzen eta beste aplikazio-datu batzuen segurtasun-kopia egiteko Googleren zerbitzarietan. Telefonoa aldatzen baduzu, segurtasun-kopia egin diezun doikuntza eta datuak berrezarriko dira telefono berrian, zure Googleko kontuarekin saioa hasten duzun lehenengo aldian. Funtzio hori aktibatuz gero, doikuntza eta datu askoren segurtasun-kopia egiten da, besteak beste: WiFi pasahitzak, gogokoak, instalatutako aplikazioen zerrenda, hiztegian sartu dituzun hitzak eta Ezarpen aplikazioan konfiguratutako doikuntza gehienak. Aukera hau desmarkatuz gero, ez da egingo zure konfigurazioaren segurtasun-kopiarik, eta lehendik dauden segurtasun-kopia guztiak ezabatuko dira Googleko zerbitzarietatik.

**Babeskopietarako ontua**

Ukitu segurtasun-kontu bat sortzeko.

**Leheneratze automatikoa**

Ukitu etengailua, gordetako doikuntzak edo beste datu batzuk berrezartzeko, aplikazio bat berriro instalatzen duzunean.

**Sarearen ezarpenen berrezarpena**

Ukitu, sareko doikuntza guztiak berrezartzeko.

**Berrezarri jatorrizkoak**

Telefonoa berrezartzen baduzu, ezabatu egingo dira telefonoaren barne-biltegiratzean dituzun datu pertsonal guztiak, bai eta Googleko kontuari edo beste konturen bati buruzko informazioa, sistemako eta aplikazioetako doikuntzak eta deskargatutako aplikazio guztiak ere. Telefonoa berrezartzean ez dira ezabatzen deskargatutako sistemako softwareen eguneraketak.

Telefonoa horrela berrezartzen baduzu, Android lehen aldiz martxan jarri zenuenean eskatu zitzaizun informazio bera eskatuko zaizu.

Telefonoa piztea lortzen ez duzunean, fabrikako datuak berrezar ditzakezu, hardwareko tekla batzuk erabilita. Horretarako, sakatu bolumena igotzeko tekla eta pizteko tekla aldi berean, pantaila pizten den arte.

## 11.4 Sistema

### 11.4.1 Data eta ordua

Erabili Data eta ordua aukerako doikuntzak, data eta ordua bistaratzeko modua pertsonalizatzeko.

**Ordu/Data automatikoa**

Aktibatu etengailua, sareak emandako data eta ordua erabiltzeko.

**Ordu-zona automatikoa**

Ukitu etengailua, sareak emandako ordu-zona erabiltzeko.

**Ezarri data**

Ukitu hau elkarrizketa-koadro bat irekitzeko, eta telefonoko data eskuz jarri ahal izateko.

**Ezarri ordua**

Ukitu hau, elkarrizketa-koadro bat ireki eta telefonoko ordua eskuz jartzeko.

**Hautatu ordu-zona**

Ukitu hau, elkarrizketa-koadro bat ireki eta telefonoko ordu-eremua jartzeko.

**Erabili 24 h formatua**

Ukitu etengailua, erlojua 24 orduko formatuan bistaratzeko.

### 11.4.2 Ereabilerraztasuna

Erabili irisgarritasun-doikuntzak, telefonoan erabiltzaileak instalatutako irisgarritasun-osagarriak konfiguratzeko.

**TalkBack**

Ukitu, telefonoz egindako iruzkinak aktibatzeko.

**Azpitituluak**

Ukitu hemen, telefonoko pantailako argazki-oinak aktibatzeko edo desaktibatzeko.

**Handiagotzeko keinuak**

Ukitu, aukera hau gaitzeko/desgaitzeko eta handitzeko/txikitzeko funtzioa aktibatzeko/desaktibatzeko, pantaila hiru aldiz ukituta.

**Testu handia**

Ukitu etengailua, pantailako testua handitzeko.

**Kontraste handiko testua**

Ukitu etengailua, kontraste handiko testua aktibatzeko.

**Piztekoarekin amaitu**

Ukitu etengailua, pizteko botoia sakatuta deia amaitzeko aukera aktibatzeko.

**Biratu automatikoki**

Ukitu etengailua, pantaila automatikoki biratzeko funtzioa aktiba dadin. Pantailako edukiak edo teklatuak bira ematen dute automatikoki telefonoari bira ematen diozunean.

**Ahozkatu pasahitzak**

Ukitu etengailua, idatzi ahala sistemak pasahitza esan dezan.

**Erabilerraztasun-lasterbidea**

Ukitu, funtzioetarako lasterbidera aktibatzeko edo desaktibatzeko.

**Testua > ahotsa ezarpenak**

Ukitu, ahots bidez idazteko metodoaren doikuntzak eguneratzeko; ahotsaren abiadura, esaterako.

**Ukitzearen erreakzio-tartea**

Ukitu hau ukitzearen eta luze sakatzearen itxarote-denbora doitzeko. Funtzio honen bidez, telefonoak bi ekintza hauek bereiz ditzake nahi ez den ekintzarik ez egiteko: ukitu, eta ukitu eta luze sakatu.

**Koloreen-alderantzikatzea**

Ukitu etengailua, kolorea alderantzikatzeko aukera aktibatzeko edo desaktibatzeko.

**Koloreen zuzenketa**

Ukitu, kolorea zuzentzeko aukera aktibatzeko edo desaktibatzeko.

### 11.4.3 Legeak eta segurtasuna

Ukitu, produktuari buruzko informazioa ikusteko.

### 11.4.4 Telefonoari buruz

Informazio ugari dago hemen: lege-informazioa, modeloaren zenbakia, firmwarearen bertsioa, oinarri-bandaren bertsioa, kernel bertsioa eta konpilazio-zenbakia. Baita aukera hauek ere:

**Eguneratzeak**

Ukitu hau sistemaren eguneratzeak bilatzeko.

**Esperientzia hobetu da**

Funtzio hau aktibatzen bada, gailuaren errendimendu-datuak bilduko dira, gailuaren kalitatea eta errendimendua hobetzeko.

**Egoera**

Bateriaren egoera, telefonoaren zenbakia, sarea, seinalearen intentsitateari buruzko informazioa eta abar daude hemen.

# 12 VR goggles[1]............................

## 12.1 Martxan jartzea

### 12.1.1 Errealitate birtualeko betaurrekoei buruz

Erabili betaurreko horiek, errealitate birtualeko esperientziak bizitzeko, zure IDOL 4 edo IDOL 4S sartuz, eta ikusi edukiak 2Dn eta 3Dn, hala nola jokoak, bideoak eta errealitate birtualeko beste aplikazio batzuk.

**Errealitate birtualeko betaurrekoen diseinua**




**Oharra:** Ukipenarekiko sentikorrak dira botoiak; ez dago sakatu beharrik.

(1) Herrialdearen arabera.

## 12.1.2 Errealitate birtualeko betaurrekoak lehen aldiz abiaraztea

Errealitate birtualeko betaurrekoak aurrez instalatutako “Visor VR” aplikazioaren bidez abiaraz ditzakezu. Errealitate birtualeko betaurrekoak erabili aurretik, ziurtatu aplikazioa konfiguratuta dagoela eta behar diren baimenak dituela.

Jarraitu urrats hauei, gailua errealitate birtualeko betaurrekoetan sartu **baino lehen**.

1. Abiarazi “VR mahaigaina” aplikazioa.
2. Aplikazioak ez baldin baditu behar diren baimenak, une honetan eskatuko zaizkizu. Eman iezazkiozu, mesedez.




3. Irakurri eta onartu segurtasun-oharra ADOS sakatuz.




4. Konektatu entzungailuak, eta ukitu “IREKI”, errealitate birtualeko betaurrekoen bistaratze-modua abiarazteko. Urrats horren ondoren, gailua prest dago errealitate birtualeko betaurrekoetan sartzeko.



Jarraitu urrats hauei, gailua errealitate birtualeko betaurrekoetan sartzeko.

1. Jarri atzamarrak alboko zuloaren zirrikituan, eta tiratu goiko estalkitik kanporantz, irekitzeko.



2. Sakatu pintza beherantz sendo, atzera egin dezan, eta sartu gailua errealitate birtualeko betaurrekoetan. Ziurtatu gailua piztuta dagoela eta pantaila desblokeatuta.



**Oharra:** Ez behartu pintza, hautsi liteke eta. Egiaztatu behar bezala blokeatu dela. Bestela, litekeena da gailua erori eta hondatzea.

3. Sakatu botoia, beheko estalkia irekitzeko.



4. Eutsi errealitate birtualeko betaurrekoei bi eskuekin. Atzera (ezkerrean) eta Hautatu (eskuinean) botoiak behealdean daude.



Ukipenarekiko sentikorrak dira botoiak; ez dago sakatu beharrik.

**Oharrak:**

- Garbi eta urraturik gabe eduki lenteak. Lenteak garbitzeko zapiaz garbitu ditzakezu.
- Litekeena da aparrezko motelgailuaren eremua hondatzea, denborarekin, izerdiaren eraginez. Errealitate birtualeko betaurrekoak erabiltzeko, garbi eta lehor eduki behar duzu aurpegia.

### 12.1.3 VR mahaigaina aplikazioaren konfigurazioa

Jarraitu urrats hauei errealitate birtualeko moduarekin VR mahaigaina aplikazioa abiarazi **eta gero**.

**Oharra:** Errealitate birtualeko betaurrekoek buruaren mugimenduak ezagutzen dituzte. Pantailaren erdian dagoen erakuslea burua edozein norabidetan mugituz mugi dezakezu. Baliteke aplikazio batzuetan erakuslea ez agertzea.






1. Errealitate birtualeko betaurrekoak erabiltzen dituzun bitartean interakzioan aritzeko, ukitu “Hautatu” botoia edo labur sakatu entzungailuen botoia erakuslea ikono batean jartzen duzun bitartean.
2. Visor VR aplikazioak barne-biltegiko edo SD txarteleko irudiak edo DCIM eta errealitate birtualeko multimedia-fitxategien karpetetako edukiak ezagutzen ditu.
3. Lehenengo aldiz Visor VR irekitakoan, doikuntzak konfiguratu ditzakezu. Gero, Visor VRren pantaila nagusiko **Ezarpen** lasterbidea erabil dezakezu horretarako.
   - **Distira:** jarri erakuslea edo irudiaren gainean, eta ukitu “Hautatu” botoia, pantaila iluntzeko edo argitzeko.
   - **Bolumena:** jarri erakuslea edo irudiaren gainean, eta ukitu “Hautatu” botoia, bolumena handitzeko edo txikitzeko.
   - **Begiratu eta itxaron:** Funtzio honen bidez, elementu bat hauta dezakezu erakuslea haren gainean 3 segundoz jarriz. Jarri erakuslea irudiaren gainean 3 segundoz, funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko.

   **Oharra:** Errealitate birtualeko aplikazio eta pantaila guztiek ez dute onartzen funtzio hori.

## 12.1.4 Aplikazioa erabiltzea

### 360 -ko argazkiak



Hemen, bere inguruko espazio birtual guztia hartzen duten argazki bereziak bistara ditzakezu.

**Oharra:** Deskargatu 360°-ko argazki gehiago Tienda VR aplikaziotik.

### 360°-ko bideoak



Hemen, bere inguruko espazio birtual guztia hartzen duten bideo bereziak bistara ditzakezu.

Oharrak:

- Deskargatu 360°-ko bideo gehiago Tienda VR eta LittleStar Cinema aplikazioetatik.
- Kontrolak eskuratu ditzakezu bideoak ikusten ari zaren bitartean Hautatu botoia ukituz.

 Erreprodukzioa eteteko

 Aurreko edo hurrengo bideora joateko.

 Bideo-zerrenda bat ikusteko.

 Bolumena handitzeko eta txikitzeko.

### Argazkiak



Gailuko argazkiak eta irudiak ikus ditzakezu hemen. Bi bistaratze -modu daude. Hautatu bat, erakuslea gainean jarrita eta Hautatu botoia sakatuta.

**Oharra:** Irudiak edo DCIM eta errealitate birtualeko multimedia -karpetetako argazkiak eta irudiak automatikoki gehituko dira hemen.

**Bideoak**



Hemen, bideo arruntak errealitate birtualeko moduan bistara ditzakezu.

**Jokoak**



Hemen, instalatutako errealitate birtualeko joko guztiak eskura ditzakezu. Onartutako jokoak automatikoki gehituko dira instalatzen direnean.

**Oharra:** Deskargatu joko gehiago Tienda VR aplikaziotik.

## 12.2 Arazoak eta irtenbideak

1. Gailua beroa dago.

   Errealitate birtualeko betaurrekoek ohi baino energia gehiago behar dute. Denbora luzez erabiltzen direnean, gerta liteke gailua berotzea. Utzi betaurrekoen funtzioak edo aplikazioak erabiltzeari, eta itxi itzazu, atera gailua, eta itxaron hoztu arte berriro erabiltzeko. Hori normala da, eta ez dio eragiten gailuaren funtzionamenduari edo bizitza baliagarriari.

2. Visor VR aplikazioa ez da automatikoki abiarazten gailua errealitate birtualeko betaurrekoetan sartzen denean.

   a) Ziurtatu Visor VR aplikazioari eman dizkiozula behar dituen baimenak.

   b) Begiratu “Inicio automático de realidad virtual” aukera aktibatuta dagoen Ezarpen > Pantailan.

   c) Ziurtatu gailuaren pantaila desblokeatu egiten dela gailua errealitate birtualeko betaurrekoetan sartzen denean.

## 12.3 Segurtasun-informazioa

Epilepsia-krisiak, konorte-galerak edo epilepsiari lotutako beste sintoma batzuk izaten dituzten erabiltzaileek mediku bati galdetu behar diote gailua erabili aurretik.

Errealitate birtualeko betaurrekoak ez dituzte 13 urtetik beherako haurrek erabili behar. 13 urtetik gorako haurrek heldu batek gainbegiratuta erabili behar dituzte, betaurreko horiek erabiltzeak begi-eskuetako koordinazioari, orekari eta zenbait zeregin egiteko gaitasunari eragin baitiezaieke.

Ingurune seguruetan baino ezin dira erabili. Leku hauetan ez da komeni erabiltzea: kanpoaldean; jendea, objektu puntadunak, eskailerak edo balkoiak dauden lekuetan eta arreta jarri behar den egoeretan, esaterako, gidatzen ari zarela edo oinez edo bizikletaz zoazela.

Ez erabili errealitate birtualeko betaurrekoak nekatuta bazaude, biharamuna baduzu edo alkoholaren edo drogen eraginpean bazaude, edo estres emozionala, antsietatea, lo falta, sukarra, buruko mina, migraina, belarriko mina edo digestio-arazoak badituzu.

Egin 15-30 minutuko atsedenaldiak, 15 minututik behin. Errealitate birtualeko betaurrekoak denbora luzez erabiltzeak mina eragin dezake giharretan, artikulazioetan edo azalean. Hori gertatuz gero, atseden hartu zenbait orduz, jarraitu aurretik.

# 13 Atera ahalik eta etekin handiena zure telefonoari..............................

## 13.1 Smart Suite

Programen bertsio berriak doan deskargatu ditzakezu www.alcatel-mobile.com webgunean. Smart Suitek hauek ditu:

- **Kontaktuak**

  Kontaktuen sarreren segurtasun-kopia bat egin daiteke, eta, hala, ez dago kezkatu beharrik telefonoa galdu, apurtu, aldatu edo hornitzailea aldatuz gero.

- **Mezuak**

  Teklatuarekin testua idaztearen lana kentzen dizu. Bistaratu zure mezu guztiak, erraz eta modu antolatuan.

- **Egutegia**

  Telefonoaren eta Outlooken artean gertaerak sinkronizatzeko aukera ematen du, bai eta PC batetik gertaerak sortzeko eta editatzeko ere.

- **Argazkiak**

  Argazkiak erraz inporta daitezke PCtik edo telefonotik, eta albumetan antola daitezke, hobeto kudeatzeko.

- **Bideoak**

  PCko bideo-fitxategiak txertatu eta erreproduzitzeko, eta, gero, telefonoko karpetetan kargatzeko.

- **Musika**

  PCko gogokoak azkar bilatzeko, azken liburutegia administratzeko eta modu mugikorrerako disko-makina digital erabilerrazenaz gozatzeko.

- **Aplikazioa**

  Deskargatutako aplikazio mugikorrak inportatzeko eta zure telefonoan modu sinkronizatuan instalatzeko.

- **Segurtasun-kopia**

  Kontaktuen, mezuen, egutegiaren, argazkien eta aplikazioen segurtasun-kopia egiteko eta telefonora inportatzeko aukera ematen du.

**Sistema eragile bateragarria**

Windows XP/Vista/Windows 7/Windows 8.

## 13.2 Eguneratzea

Mobile Upgrade edo Actualización FOTA tresna erabil dezakezu telefonoaren softwarea eguneratzeko.

### 13.2.1 Mobile Upgrade

Deskargatu Mobile Upgrade tresna ALCATELen webgunean (www.alcatel-mobile.com), eta instala ezazu PCan. Abiaraz ezazu tresna, eta eguneratu zure telefonoa, argibideak urratsez urrats jarraituz (kontsultatu ezazu tresnarekin batera datorren erabiltzailearen eskuliburua). Hala, zure telefonoak programarik modernoenak izango ditu.

Eguneratze-prozesuaren ondoren, zure informazio pertsonal guztia galduko da behin betiko. Gomendatzen dizugu, eguneratu aurretik, zure datu pertsonalen segurtasun-kopia egitea, Smart Suite-ren bidez.

### 13.2.2 FOTA eguneratzea

Erabili Actualización FOTA tresna (Firmware Over The Air) telefonoaren softwarea eguneratzeko. **Sistemaren eguneratzeetara** sartzeko, ukitu aplikazioen fitxa pantaila nagusian, eta, ondoren, hautatu **Eguneratzeak** edo ukitu **Ezarpen/ Telefonoari buruz /Eguneratzeak**.

Ukitu telefonoak software berriena bilatu dezan. Sistema eguneratu nahi baduzu, botoia, eta prest dagoenean, ukitu, eguneratzea bukatzeko. Hori eginda, zure telefonoak softwarearen bertsio berriena eduki ko du. Eguneraketak bilatu aurretik, datu-konexioa edo WiFi-a aktibatu behar duzu. Egiaztatze automatikoko maiztasunerako doikuntzak ere eskuragarri daude telefonoa berrabiarazten denean. Egiaztatze automatikoa hautatu baldin baduzu, sistemak bertsio berri bat bilatzen duenean, elkarrizketa-koadro bat irekitzen da, deskargatzea edo kasurik ez egitea hautatzeko. Jakinarazpena egoera-barran ere bistaratuko da.

FOTA bidez deskargatzean edo eguneratzean, ez aldatu biltegiratze-kokapen lehenetsia, errorerik gerta ez dadin pakete-eguneratze zuzenak gordetzean

# 14 Osagarriak..................................

Alcatel telefono mugikorren azken belaunaldiak "esku libreko funtzioa" du barnean, telefonoa distantzia jakin batetik erabili ahal izateko, adibidez, mahai baten gainean dagoenean. Zure elkarrizketak konfidentzialak izan daitezen, entzungailu edo esku libreko eramangarri bat ere badu.

1. Kargagailua
2. USB kablea
3. Entzungailu estereoa

Erabili gailuarekin datozen Alcatelen bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik.

# 14 Telefonoaren bermea ............

Zure telefonoa bermatuta dago bi (2) urterako[1], jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modeloa, IMEIa, data eta saltzailea.

Telefonoak erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren piezaren bat) konpondu edo aldatu egingo zaizu, zer komeni den. Konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriek hiru (3) hilabeteko bermea dute akats berak. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin liteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak eta/edo pieza osagarriek arrazoi hauengatik izaten dituzten akatsak:

1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio-jarraibideak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzea.
2) TCL Communication Ltd-k emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzea.

(1) Erabileraren eta sarearen konfigurazioaren araberakoa izango da telefono mugikorraren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bizitza erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango duela errendimendurik onena zure telefonoak.

3 Konponketak edo aldaketak TCL Communication Ltd-k edo haren filialek edo baimendutako mantentze-lanetako zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egiteagatik.

4) TCL Communication Ltd.-ek baimendutakoak ez diren pertsona batzuek software- edo hardware-aldaketak edo -doikuntzak egin badituzte.

5) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarrengatik.

Telefonoa ez da konponduko etiketak edo serie-zenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCL Communication Ltd edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egozten ez badie.

Herrialde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme inplizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea.

Zure telefonoaren legezko bermearen aplikazioari buruzko erreklamazioren bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraiki, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (902 113 119) edo helbide honetara idatziz:
TCL Communication Ltd. Europe SAS
Immeuble Le Capitole
Parc des Fontaines
55, avenue des Champs Pierreux
92000 Nanterre
Frantzia

# 16 Arazoak eta irtenbideak.......

Zerbitzu-zentroarekin harremanetan jarri aurretik, kontsultatu gomendio hauek:

- Bateria optimizatzeko, erabat kargatzea gomendatzen dizugu ( ).
- Ez gorde datu-kantitate handirik telefonoan, horrek funtzionamenduari eragin baitiezaioke.
- Erabili Actualización FOTA tresna (Firmware Over The Air) telefonoaren softwarea eguneratzeko. Sistemaren eguneratzeetara sartzeko, ukitu aplikazioen fitxa pantaila nagusian, eta, ondoren, hautatu **Eguneratzeak edo ukitu Ezarpen\Telefonoari buruz \ Eguneratzeak**. Ukitu telefonoak software berriena bilatu dezan. Sistema eguneratu nahi baduzu, ukitu botoia, eta prest dagoenean, ukitu , eguneratzea bukatzeko. Hori eginda, zure telefonoak softwarearen bertsio berriena edukiko du. Eguneraketak bilatu aurretik, datu-konexioa edo WiFi-a aktibatu behar duzu. Egiaztatze automatikoko maiztasunerako doikuntzak ere eskuragarri daude telefonoa berrabiarazten denean. Egiaztatze automatikoa hautatu baldin baduzu, sistemak bertsio berri bat bilatzen duenean, elkarrizketa-koadro bat irekitzen da, deskargatzea edo kasurik ez egitea hautatzeko. Jakinarazpena egoera-barran ere bistaratuko da.
  FOTA bidez deskargatzean edo eguneratzean, ez aldatu biltegiratze-kokapen lehenetsia, errorerik gerta ez dadin pakete-eguneratze zuzenak gordetzean

- Erabili **Berrezarri jatorrizkoak** aukera eta Mobile Upgrade tresna telefonoa formateatzeko edo softwarea eguneratzeko (fabrikako datuak berrezartzeko, luze sakatu, aldi berean, **pizteko** tekla eta **bolumena igotzeko** tekla). Erabiltzailearen telefonoko datu GUZTIAK —kontaktuak, argazkiak, mezuak, fitxategiak eta deskargatutako aplikazioak— galdu egingo dira, behin betiko. Gomendatzen da Smart suite-ren bidez telefonoko eta profileko datu guztien segurtasun-kopia egitea, formateatu edo eguneratu aurretik, eta egiaztatzea.

  Gogoan izan, fabrikako datuak berrezarri eta gero, litekeena dela gailu horretan erregistratuta zegoen Google kontuaren egiaztagiriak* sartzeko eskatzea. Sartzen ez badituzu, ezingo duzu erabili gailua. Ez badituzu gogoan zure Google kontuaren egiaztagiriak, egin Google kontuak berreskuratzeko prozesua. Lortzen ez badituzu, jarri harremanetan konponketa-zentro baimenduarekin, baina kontuan izan ez dagoela bermean jasota.

  *Android OS 5.1i edo berriagoei aplikatuko zaie.

Puntu hauek begiratzea ere komeni da:

**Telefonoa ezin da piztu edo blokeatuta dago**

- Telefonoa piztu ezin baduzu, kargatu gutxienez 20 minutuz, behar den gutxieneko bateria-karga duela ziurtatzeko, eta saiatu berriz pizten.
- Telefonoa begizta batean erortzen bada pizteko edo itzaltzeko animazioan eta ezin bada sartu erabiltzailearen interfazera, luze sakatu bolumena jaisteko tekla, modu seguruan sartzeko. Hala, hirugarren batzuen APK fitxategiek eragiten dituzten SEaren abiarazte-arazoak saihesten dira.
- Metodo horietako batek ere funtzionatzen ez badu, berrabiarazi telefonoa **pizteko** tekla eta **bolumena igotzeko** tekla erabiliz (biak batera sakatuz), edo eguneratu softwarea eguneratze-tresnaren bidez.

**Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu**

- Berrabiarazi telefonoa. Horretarako, luze sakatu **pizteko tekla**.

- Funtzionatu gabe jarraitzen badu, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera, telefonoa berrabiarazteko, edo FOTA/Mobile Upgrade, softwarea eguneratzeko.

## Telefonoa bakarrik itzaltzen da

- Ziurtatu pantaila blokeatuta geratzen dela telefonoa erabiltzen ari ez zarenean, eta begiratu **pizteko** teklak ez erantzuteko arrazoia desblokeatze-pantaila den.
- Begiratu bateriaren kargatze-maila.
- Funtzionatu gabe jarraitzen badu, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera, telefonoa berrabiarazteko, edo FOTA/Mobile Upgrade, softwarea eguneratzeko.

## Telefonoa ez da behar bezala kargatzen

- Begiratu ea bateria erabat agortuta dagoen; denbora luzez egon bada deskargatuta, ia 20 minutu igaro daitezke pantailan bateriaren karga adierazten duen ikonoa agertu arte.
- Egiaztatu kondizio normaletan kargatzen dela (0 °C eta +40 °C bitartean).
- Atzerrian, begiratu tentsio-sarrerarekin bateragarria den.

## Nire telefonoa ez da konektatzen inolako saretara, edo “Zerbitzurik gabe” bistaratzen da

- Begiratu telefono mugikorrak beste sareren bat aurkitzen duen beste toki batean.
- Egiaztatu sarearen estaldura, operadoreari galdetuta.
- Egiaztatu SIM txartela baliokoa dela operadorearekin.
- Saiatu eskuz hautatzen sare erabilgarria(k).
- Sareak gainkarga baldin badu, saiatu berriz geroago.

## Telefonoa ezin da Internetera konektatu

- Egiaztatu IMEI zenbakia (sakatu *#06#) kaxan edo bermean agertzen den bera dela.
- Egiaztatu zure SIM txartelaren Interneteko sarbide-zerbitzua eskuragarri dagoela.
- Begiratu telefonoaren Interneteko konexioaren doikuntzak.

- Ziurtatu sare-estaldura dagoen toki batean zaudela.
- Saiatu beranduago konektatzen edo beste toki batetik konektatzen.

## SIM txartel baliogabea

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta  dagoela.
- Begiratu SIM txartelaren txipa ez ote dagoen hondatuta edo marratuta.
- Egiaztatu zure SIM txartelaren zerbitzua erabilgarri dagoela.

## Ezin da deirik egin

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula eta  sakatu duzula.
- Nazioarteko deietarako, begiratu herrialdeko/eremuko kodeak.
- Egiaztatu zure telefonoa sare batera konektatuta dagoela eta sareak ez duela gainkargarik edo erabilgarri dagoela.
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez dituzula irteerako deiak debekatu
- Egiaztatu telefonoa ez dagoela hegazkin-moduan.

## Ezin da deirik jaso

- Egiaztatu telefonoa piztuta eta sare batera konektatuta dagoela (eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela).
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez dituzula sarrerako deiak desbideratu.
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu
- Egiaztatu telefonoa ez dagoela hegazkin-moduan.

## Solaskidearen izena edo zenbakia ez da bistaratzen deia jasotzean

- Egiaztatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela.
- Solaskideak ez du ematen bere izena edo zenbakia.

## Ez ditut nire kontaktuak aurkitzen

- Egiaztatu SIM txartela ez dagoela kaltetuta.
- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta  dagoela.

- Inportatu telefonora SIM txartelean gordetako kontaktu guztiak.

**Deien soinuaren kalitatea eskasa da**

- Deia egitean, **bolumena igotzeko eta jaisteko** teklaren bidez doitu dezakezu bolumena.
- Begiratu seinalearen intentsitatea .
- Egiaztatu hargailua, konektorea edo telefonoaren bozgorailua garbi daudela.

**Ezin ditut erabili eskuliburuan azaltzen diren funtzioak**

- Egiaztatu badagokizula zerbitzu hori operadoreari ordaintzen diozunaren arabera
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela Alcatelen osagarriren bat behar

Nire kontaktuetako zenbaki bat hautatzen dut, baina ezin dut markatu

- Egiaztatu erregistroaren zenbakia ongi gorde duzula.
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula.

**Ezin dut zenbakirik gehitu telefono-zerrendara**

- Egiaztatu SIM txartela ez dagoela beteta, kendu kontaktuak edo gorde kontaktuak telefonoaren agendetan (profesionala edo pertsonala).

Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

**Ezin naiz ahots-postontzira sartu**

- Ziurtatu zure operadorearen ahots-postontziaren zenbakia ondo sartuta dagoela hemen: “Erantzungaila”.
- Sarea okupatuta badago, saiatu geroago.

**Ezin dut MMSrik bidali edo jaso**

- Egiaztatu telefonoak memorian leku librea duela; beteta egon liteke.

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez, eta begiratu MMS parametroak.
- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua.
- Saiatu berriz aurrerago; zerbitzari-zentroa beteta egon liteke.

**SIM txartelaren PINa blokeatuta dago**

- Jarri harremanetan operadorearekin desblokeatzeko PUK kodea lortzeko.

**Ezin dut telefonoa ordenagailura konektatu**

- Instalatu Smart Suite.
- Egiaztatu USB kontrolagailua behar bezala instalatuta dagoela.
- Ireki jakinarazpen-panela, eta begiratu Smart Suite kudeatzailearen agentea aktibatuta dagoen ala ez.
- Ziurtatu USBa arazteko kontrol-laukia markatu duzula.
- Egiaztatu ordenagailuak Smart Suite instalatzeko behar diren zehaztapen guztiak betetzen dituela
- Ziurtatu gailuarekin datorren kable egokia erabiltzen ari zarela.

**Ezin ditut fitxategi berriak deskargatu**

- Egiaztatu telefonoan nahikoa memoria dagoela deskargarako.
- Hautatu microSD txartela deskargatutako fitxategiak gordetzeko kokapen gisa.
- Galdetu operadoreari zure harpidetza zer egoeratan dagoen.

**Beste gailu batzuek ez dute detektatzen telefonoa bluetooth bidez**

- Egiaztatu Bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela eta zure mugikorra ikusgai dagoela beste erabiltzaileentzat
- Egiaztatu bi telefonoak bluetootharen atzemate-eremuan daudela.

**Nola lortu bateriak gehiago irautea**

- Egiaztatu telefonoari erabat kargatzen utzi diozula (100 min gutxienez).
- Karga partzial baten ondoren, baliteke karga-maila behar bezala ez adieraztea. Kargagailua deskonektatu eta gero, itxaron 20 minutu karga-maila zehatza jakiteko.
- Piztu atzealdeko argia behar duzunean.
- Luzatu ahalik eta gehiena posta elektronikoa automatikoki begiratzeko tartea.
- Eguneratu eskuz albisteak eta eguraldiari buruzko informazioa edo luzatu automatikoki egiaztatzeko denbora-tartea.
- Itxi bigarren planoan exekutatzen diren aplikazioak, luzaroan erabili behar ez badituzu.
- Desaktibatu bluetootha, WiFia eta GPSa erabili behar ez dituzunean.

**Telefonoa berotu egingo da dei luzeak eginez gero, jokoak erabiliz gero, Interneten nabigatuz gero edo beste aplikazio konplexu batzuk exekutatuz gero.**

- Normala da, CPUa datu-bolumen handiak kudeatzen ari baita. Ekintza horiek guztiak amaitzean, telefonoak ohiko tenperatura berreskuratuko du.

**Fabrikako datuak berrezarri ondoren, nire gailuak Google kontuaren egiaztagiriak eskatzen dizkit, eta ezin dut erabili pauso hau eman gabe*.**

- Fabrikako datuak berrezarri ondoren, gailu honetan erregistratuta zeuden Google kontuaren egiaztagiriak sartu behar dituzu. Sartzen ez badituzu, ezingo duzu erabili gailua. Ez badituzu gogoan zure Google kontuaren egiaztagiriak, egin Google kontuak berreskuratzeko prozesua. Lortzen ez badituzu, jarri harremanetan konponketa-zentro baimenduarekin, baina kontuan izan ez dagoela bermean jasota.

  *Android OS 5.1i edo berriagoei aplikatuko zaie.

**Ez dut entzuten deia norbaitek deitzen edo mezu bat bidaltzen didanean. Soil-soilik dei- edo mezu-jakinarazpenak ikusten ditut pantailan.**

- Egiaztatu Soinua eta jakinarazpena//Ez molestatu modua aktibatuta duzun gailuan. Aktibatuta baldin badago, izarraren ikonoa (Android OS 5.X bertsioan) edo ikonoa (Android OS 6.X bertsioan) ikusiko duzu jakinarazpen-panelean. Beraz, Interrupciones/No molestar modua desaktibatu egin behar duzu. Hori egiteko, sakatu bolumena igotzeko edo jaisteko tekla, eta hautatu "Guztia" (Android 5.X bertsioan), edo aldatu aukera hauek: Ezarpen/ Soinua eta jakinarazpena//Ez molestatu (Android 5.X bertsioan) edo Ez molestatu (Android 6.X bertsioan).

**Gogoan ez dudan pasahitz/kode/gako bat eskatzen dit nire gailuak. Beste pertsona batek erabili duelako ahaztu dut gakoa, eta ezin diot eskatu.**

- Gailuan aktibatuta dagoen segurtasun-funtzioaren ondorioz eskatzen dizu pasahitz/kode/gako hori. Fabrikako datuak berrezartzen saia zaitezke, baina kontuan izan aukera honek funtzionatzen ez badu konponketa-zentro baimenduarekin jarri behar duzula harremanetan, eta konponketa ez dagoela bermean jasota.

# 17 Zehaztapenak (Alcatel IDOL 4) ......................

| | |
|---|---|
| **Prozesadorea** | Qualcomm MSM8952 |
| **Plataforma** | Android M |
| **Memoria** | 16 GB-ko ROM memoria/3 GB-ko RAM memoria |
| **Neurriak (luzera x zabalera x lodiera)** | 147 x 72,5 x 7,1 mm |
| **Pisua** | 135 g |
| **Pantaila** | 5,2 FHD; 1920x1080-ko ukipen-pantaila |
| **Sarea** | GSM: 850/900/1800/1900<br>UMTS: 850/900/1900/2100<br>LTE: 1/3/7/8/20/28A edo<br>1/3/7/8/20/28A/38/40<br>Maiztasun-banda eta datuen abiadura operadorearen araberakoak dira |
| **GPSa** | A-GPS |
| **Konektagarritasuna** | • Bluetootha, 4.2 bertsioa<br>• WiFi-a: 802.11a/b/g/n (2,4 GHz eta 5 GHz) edo 802.11a/b/g/n/ac (2,4 GHz eta 5 GHz)<br>• 3,5 mm-ko Jack audio-konektorea<br>• Mikro USBa |

| | |
|---|---|
| **Kamera** | • Atzeko kamera 13 megapixelekoa<br>• Aurreko kamera 8 megapixelekoa |
| **Audio-formatu bateragarriak** | AAC LC, AAC+, AAC+ hobetua, AMR-NB, AMR-WB, FLAC, MP3, MIDI, Vorbis, PCM/ WAVE |
| **Bideo-formatu bateragarriak** | H.265, H.264, H.263, MPEG-4, XVID, VP8, VC-1 |
| **Bateria** (1) | • Litio-ioizko bateria kargagarria<br>• Edukiera: 2610 mAh |
| **Zabaltzeko arteka** | microSD™ memoria-txartela (microSD txartela erabilgarri merkatuaren arabera) |
| **Funtzio berezien tekla** | • GPSa<br>• G sentsorea<br>• Argi-sentsorea<br>• Hurbiltasun-sentsorea<br>• Iparrorratz elektronikoa<br>• Giroskopioa<br>• Hall-efektuaren etengailua |

**Oharra:** Zehaztapenak aldatu egin litezke aurretik jakinarazi gabe.

(1) Jatorrizko bateriari segurtasun-azterketa zorrotzak egin zaizkio, kalifikazio-estandarrak bete ditzan; jatorrizkoak ez diren bateriak erabiltzea arriskutsua izan daiteke.

# 18 Zehaztapenak (Alcatel IDOL 4S)

| | |
|---|---|
| **Prozesadorea** | Qualcomm MSM8976 |
| **Plataforma** | Android M |
| **Memoria** | 16/32 GB-ko ROM memoria + 3 GB-ko RAM memoria |
| **Neurriak (luzera x zabalera x lodiera)** | 153.9 x 75.4 x 6.99 mm |
| **Pisua** | 149 g |
| **Pantaila** | 5,5 QHD; 2560x1440-ko ukipen-pantaila |
| **Sarea** | GSM: 850/900/1800/1900<br>UMTS: 850/900/1900/2100<br>LTE: 1/3/7/8/20/28A<br>Maiztasun-banda eta datuen abiadura operadorearen araberakoak dira |
| **GPSa** | GPS lagundua / GPS barne-antena |
| **Konektagarritasuna** | • Bluetootha, 4.2 bertsioa<br>• WiFi-a: 802.11a/b/g/n/ac (2,4 GHz eta 5 GHz)<br>• 3,5 mm-ko Jack audio-konektorea<br>• Mikro USBa |

| | |
|---|---|
| **Kamera** | • Atzeko kamera 16 megapixelekoa<br>• Aurreko kamera 8 megapixelekoa |
| **Audio-formatu bateragarriak** | AAC LC, AAC+, AAC+ hobetua, AMR-NB, AMR-WB, FLAC, MP3, MIDI, Vorbis, PCM/ WAVE |
| **Bideo-formatu bateragarriak** | HEVC, H.263, H.264 AVC, MPEG-4 SP, VP8/ VP9 |
| **Bateria** [(1)] | • Litio-ioizko bateria kargagarria<br>• Edukiera: 3000 mAh |
| **Zabaltzeko arteka** | microSD™ memoria-txartela (merkatuaren araberakoa da microSD txartela egotea ala ez) |
| **Funtzio berezien tekla** | • GPSa<br>• G sentsorea<br>• Argi-sentsorea<br>• Hurbiltasun-sentsorea<br>• Iparrorratz elektronikoa<br>• Giroskopioa<br>• Hall-efektuaren etengailua |

**Oharra:** Zehaztapenak aldatu egin litezke aurretik jakinarazi gabe.

(1) Jatorrizko bateriari segurtasun-azterketa zorrotzak egin zaizkio, kalifikazio-estandarrak bete ditzan; jatorrizkoak ez diren bateriak erabiltzea arriskutsua izan daiteke.

Alcatel-Lucenten marka erregistratua da ALCATEL, eta TCL Communication Ltd-en lizentziarekin erabiltzen du.

© Copyright 2016 TCL Communication Ltd.
Eskubide guztiak erreserbatuta.

Aldez aurretik iragarri gabe materiala edo xehetasun teknikoak aldatzeko eskubidea du TCL Communication Ltd-ek.

Telefono honetako soinu guztiak NU TROPICek (Amar Kabouche) konposatu, konpondu eta nahasi ditu

alcatel

For more information on how to use the phone, please go to www.alcatel-mobile.com and download the complete user manual. Moreover, on the website, you can also find answers to frequently asked questions, upgrade the software via Mobile Upgrade, and so much more.